

t tipi t tapa

2001eko abenduaren 20a • XXI. urtea



**Larralde ahizpak
7 urte Salvadorren**

03

Duela zazpi urte «abenturara» joan ziren Lesakako Larralde ahizpak El Salvadorrera. Geroztik hantxe bizi dira. Amaiarekin izan gara sorterrira egin duen bisitan.



**Kirol urtearen
errebaso zabala**

28

Kirol munduan urteak eman duenaren errebasoa: Retegi II.ren agurra, Olaizola I.ren txapela, debutak, aizkora desafioak eta bertze hainbat kontu.

04 Jesusen Bihotza ikastetxeak...



...140 urte





G Ü N T Ü L Ç İ Ç E

İ Ç İ Ç E

İZ - ZK N - TIG S - UNZUE

Fun r y s k r n m n t n h k s r n t z z a n V f r k f u f m k k , E s n k l i n z k t n t r s r t a z u t n l 7 5 - n , T n t r l r c h , z l z n r n l l t n s r r r .


N F S N

V f r k z n l k u t k , s l s l k t l f n z n k h u m r k t u z , r t s n m t t l t z n u t a n u n z l t r h r t n h r z k u z z v u r t u k G Ü N T Ü L Ç İ Ç E t l .


7 7



ZE İTZU E E N, ET EZI K E N, GU ET L EK T N T İ ET EİL T Kİ T İN GEHİ G E İLTZEN H L UZU.



T N T İ Z T N
r n E l z n n
z l n , r l z r n ,
Ur zu t Z u r r m u r .
H r r u z n z r t z u r u n n s i l z
t l u m m n k n .
Z r t z u k t n t r n t t x t n



DATUAK...

- 1995eko urtarrilean joan ziren El Salvadorrera Lesakako Garbiñe eta Amaia Larralde ahizpak eta Mertxe Rekondo. Amaiak dioenez, «abentura gisara» joan ziren, baina zazpigarren urtea beteko dute han bi ahizpek.
- Guztiz laketua omen dago Ertamerikako herrialde hartan. «Ez nintzen bortxatuta joan eta ez naiz bortxatua gelditu. Nik aukeratu dut han bizitzea eta lan egitea. Urtean behin etortzea ere gustatzen zait, baina gustora bizi naiz han».



Amaia LARRALDE Lesakako kooperantea El Salvadorren

«Klaseen arteko ezberdintasuna da arazorik larriena El Salvadorren»

Enara ARROBARREN

Kasik zazpi urteotan denetik bizitzea suertatu zaizu El Salvadorren, lurrikarak, uholdeak...

Bai, egia da. Ez dakit lurralde haieran berte lekuetan baina ezbehar gehiago pasaten diren edota han gertatzen direnak gehiago somatzen diren jendearen bizi-baldintzengatik. 1998an Mitch uholdea pixko bat somatu zen El Salvadorren eta aurten hiru lurrikara izan ditugu hilabete eskas batean. Beldur pixko bat pasatzen duzu, eta guretzat eskerrak beldurra bakarrik izan zela. Baina El Salvador osoan ehun mila etxe baino gehiago erori omen zen.

Egoera hori nola bizi dute etxekok, deus jakin gabe?

Beldur gehiagorekin oraindik. Lurrikara izan zenean 4-5 ordu inkomunikatuak izan ginen eta hemen momentu larriak bizi izan zituzten.

Horrelako ezbeharrek, nolako ondorioak uzten dituzte han?

Ondorio pila bat uzten dituzte. Etxe deseginak, jendea kanpoan, aterpetan, janaria eta lotarako lekua bila. Hango jendeari etxea erortzen ba-

«Jendeari etxea erortzen bazaio, duen guzia erortzen zaio eta deus gabe gelditzen da»

zaio den-dena galtzen du. Laguntzak hemen baino hagitzez eskasagoak dira. Han hain baliabide gutti dituzte zerbait pasatuz gero dena galtzen dutela.

Honelako ezbeharren ondotik, pixko bat bederen, mugitzen da hemengo jendea. Nabaritzen da hori?

ONGek momentu horietan jasotzen dute dirua, baina hainbertzeko beharra izaten da... Jana eta arropa ematen da berehala. Milioiak sartzen dira, baina ehun mila etxek lur jo dutela pentsa ezazu, familia bakoitzean banaz berte bortz senide direla... Horrek 500.000 pertsona deus gabe daudela erran nahi du. Hemengo jendearen erantzuna ona izan zen eta etxe batzuk egiten ari ziren, ez hemen bezalakoak noski. Proiektu horretan ari gara, baina han gauzak hagitiz mantso egiten dira. Nahiz eta

beharra izan, kontraerran handia da, gauzak mantso egiten ditu jendeak. Jasotzen dugun dirua ardura bat ere bada guretzat: bilatu behar duzu nori eman, gainean egon... Dirua bidaltzea eskertzen da, baina aldi berean lan gehigarria da guretzat.

Ezbehar hauetaz gain, zein da herrialde haietako arazo larriena?

Klase batetik bertzearen arteko ezberdintasuna dela iruditzen zait. Hemen maila beretsuan bizi gara, baina han batzuk hagitiz ongi bizi dira, hemen baino hobekiago, eta berte batzuk pobrezia handian. Gazteak kontzientziatzen ari dira pobrezitik ateratzeko ikasi behar dutela. Baina horretarako beka bat lortu behar da, bertzenaz ezin dute hirira joan.

Gobernuz kanpoko Erakunde batean aritzen zara, baina zer gisatako lana egiten duzu zehazki?

Nik mailegu edo kredituekin lotutako proiektuetan egin dut lan. Hango jendeak bere lur puska izaten du auzitan, baina ez du nola erosi lur hori lantzeko tresnak. Jendea antolatu, kredituak eman, diru hori bueltatu behar dela kontzientziatu...



1905ean Jesusen Bihotza ikastetxean ateratako argazkia. Ikasleak Sor Filomena ahizpa famatuarekin.

URTEURRENA ERAKUSKETA BATEKIN OSPATUKO DUTE

140 urte bete ditu Jesusen Bihotza Berako monjen ikastetxeak

Emakume alargun baten gogoa betez 1861. urtean ailegatu ziren Iruñetik Berara Pauleko San Vicenteren Karidadeko Ahizpen kongregrazioko bortz moja. Legia karrikan etxea egin eta ikastetxea sortu zuten. Lehenik «La Enseñanza» izena jarri zioten, gero «Sagrado Corazón» edo Jesusen Bihotza. Garai batean monjek gobernatutako nesken ikastetxea izan zenak, neska-mutikoak hartzen ditu orain. Hamalau moja daude egun kongregrazioan, baina bakarra ari da irakasle lanean.

Aitor AROTZENA

M^a Bautista Hualde, Francisco Irazokiren alargunaren gogoa zen ikastetxe bat sortzea Beran, «*herriko neskei hezkuntza erlijioso eta zibil ona eman asmoz*». M^a Bautista 1858an hil zen bere gogoa bete gabe, baina hil aitzinetik Jose Joaquin Agesta oinordekoari etxea lehenbailehen eraki eta Pauleko San Vicenteren Karidadeko Ahizpen kongregrazioko bortz moja ekarriaraztea eskatu zion. Agestak zailtasunak izan zituen M^a Bautista Hualderen azken hitza betetzeko, etxea eraikitzeko lekuari buruzko eztabaida piztu baitzen. Azkenean, Bera eta Altzate auzoen arteko erdibidean egitea erabaki zuten, Manuel Peñaren lurretan. Peñari Trukeneko-borda eman zioten lur horien truke, baita 1.040 pezeta ere. Lanak 1859an hasi ziren, baina lehen solairura ailegatzeko zailtasunak sortu zi-

ren berriz ere, etxe berriak sortzen izan zuten beraien lurrei kalte egiten ahal zirela uste baitzuten inguruko bizilagunek. Gainera, «hondakinak ondoko iturri publikoaren urekin nahasiko zirela» uste zuten eta probintziako Gobernadorearengana jo zuten. Kontuak kontu, etxea egin ondotik, Berara 1861ean etorri ziren bortz ahizpa horiek eta sortzaileak berak eskatuta, «*bortz horietatik bik guttienez euskaraz jakin behar zuten*».

Hasiera batean, «La Enseñanza» izena eraman zuen ikastetxeak, baina abudo Sagrado Corazón (Jesusen Bihotza) paratu zioten. Hain zuzen, Jesusen Bihotzari eskainitako Nafarroako lehendabiziko kapera paratu zuten bertan. Hasieran, ikasleak «externa» zeuden, 16 urtera arte eta egunero etxera joaten ziren. Abudo «interna» moduan ere hartu zituzten

eta mojen komunitadea arduratzen zen beraien mantenuaz. Batzuk moja izateko bidea hartzen zuten, bertzeak beraien hezkuntza osatzen zuten, bertzerik gabe.

140 urteotan denetik bizi izan du Pauleko San Vicenteren Ahizpen kongregazioak eta ikastetxeak: Gerra karlista, Gerra zibila... Carmen Oiarzabal moja beratarrak dioenez, «*Isabel II erreginak kaperarako zilarrezko kaliz landua ere opari egin zien mojei. Gerra Karlistan, berriz, Don Karlos erregeak ahizpak bisitatu zituen eta otoitz egiten egon zen. Karlistek ihes egin ondotik liberalak sartu ziren etxean eta erran zieten ahizpei lasai egoteko, ez zitzaizela deus ere gertatuko*».

KATEZISMOA EUSKARAZ

Carmen Oiarzabalen erranetan, «*euskaraz erakustea kasik debekatu zegoenean, katezismoa euskaraz ematen zuten hemen Sor Petra eta Sor Luisak. Hori beti mantendu da*». Beratarrarekin batera, Manuela, Carmen Ugalde eta Victoria Zulaika ahizpak izan ditugu solaskide. Hauetako batzuk 50 urte baino gehiago dituzte Berako kongregazioan.

Garaiak aldatuz joan dira. Moja ez zen lehendabiziko irakaslea duela hogeita hamar bat urte hasi zen, M^a Luisa Olan hain zuzen. Gaur egun hamalau moja dauden kongregazioan, baina bakarra da irakaslea Jesusen Bihotza ikastetxean. Marisol Irigoien irakasle lesakarrak erran digunez, erakusketa berexia prestatu dute 140. urteurrena ospatzeko, abenduaren 23tik aitzinera: «*Denetik bildu nahi dugu, uniformeak, notak, kartillak, argazki zaharrak... urte guzi hauek gogoratuz jendeak gozatzea nahi dugu. Momentuan laboreak ditugu batez ere, egiako edertasunak*».

HIRU BELAUNLDI IKASTETXE BEREAN

Aunitz dira Beran belaunaldiz belaunaldi seme-alabak Jesusen Bihotza ikastetxera eraman dituzten familiak. Azken hiru belaunaldiak ikastetxe honetan eman dituzten familia batzuk—ez denak— bildu ditugu.

M^a Jesus San Juan Zalainen bizi zen eta in-terna moduan egon zen. «*Goizeko seietan ernatzen ginen. Orduak ematen genituen laboreak egiten arratsaldero, ortziraletan ezik. "Paño viático" delakoa egiten genuen, hiltzerakoan izaren gainean paratzen den bordatua. Orain ez dute horrelakorik egiten*».

Mariatxo Ugartemendiak bere ilobak ikusten ditu ikastetxean eta bere amak ere bertan ikasi omen zuen: «*Gure garaitik guztiz ezberdina da. Nere amak harizko izare bat egin zuen, Filomena jartzen duena, orduko moja famatua zen*».

Orokorrean, adineko emakumeek ikastetxean igaro zituzten urteen oroi-omen goxoa gorde dute. Hori bai, disziplina handia zela onartzen dute ahobatez: «*Orain haurrek beraien iritzia adierazten dute lasaiago, hori baimenduagoa dago. Orduan mojak diktado-*



KARMELE TOLOSA

Mariatxo Ugartemendia, Filin Apeztegia, M^a Jesus San Juan eta Maddi Mikelperizenak Jesusen Bihotza ikastetxean ikasi zuten. Beraien seme-alabak eta ilobak ere Berako monjen eskolan ikasi eta ikasten dute. Bakarren baten ama ere mojen eskolan arituz ikasten.

ragoak ziren». Bereziki beraien garaian superiora izan zen moja bat gogoratzen dute: «*Bere ondotik bertze superiora aunitz ezagutu ditut, baina bakar bat ere ez bera bezain zuzena. Esku hagitzarina zuen, bai ikasleekin baita kideekin ere. Hagitza jakintsua eta langilea zen, laboretarako es-*

ku onekoa, baina xuxen-xuxena. Bertze mojekin solasten ahal zen, goxogoa ziren, konfidantza gehiago eskaintzen zuten».

Carmen Oiarzabal ahizpak onartzen du disziplina handiko superiora zela, baina horretarako arrazoa ere badu: «*Militarren alaba zen*».

Carmen OIARTZABAL Berako ahizpa

“Gizartea aldatu den neurrian aldatu da Jesusen Bihotza ikastetxeko hezkuntza”

Zein aldaketa izan ditu Jesusen Bihotza ikastetxeak?

Aunitz, garai batean obra-dorean jostungintza eta plantxa egiten erakusten zitzaizkien neskei. Maiatzean plantxa erakusten zela gogoratzen dut eta familiei harizko arropa ona ekartzea eskatzen zitzaizkien, neskek plantxatzen ikasteko. Hainbat bordatu egin dira hemen. Gizartea aldatu den neu-

rrian aldatu da hezkuntza ere. Orain globalizazioaz solasten da eta arlo horretan ere sartu behar dugu. Duela hamabi urtetik honat B eredu eskaintzen dugu, euskaraz eta erdaraz. Egoera berrietara moldatzen saiatzen gara.

Eta hezkuntza ez ezik, ikasleek portaera ere aldatu izan den da...

Garai batean disziplina

handiagoa zen eta handik ezin zinen ateri. Orain, ikasleak bihurrixeagoak dira, baina bakoitza den bezala ulertzen saiatzen gara. Dena aldatu da. Familiak ere aldatu dira eta hori isladatzen da ikastetxean. Lehen disziplina, helduei errespetoa, erranak betetzea baloratzen zen. Hori gauza arrunta zen eta hortan oinarritzen zen hezkuntza.

Lege Gordailua: NA-1324/85
ISSN: 1578-4673
Franko Itundua: 34/79
Tirada: 7.100 ale

ttipi-ttapa aldizkaria
Herriko Etxeko Plaza, 1
E-31780 BERA (Nafarroa)
Tfnoa:(+34) 948 63 11 88
Faxa:(+34) 948 63 12 91

www.topagunea.com/ttapi-ttapa
ttapi-ttapa@topagunea.com

Jabea: ttipi-ttapa fundazioa. **Pre-sidentea:** Pello Apezetxea. **Kudea-tzailea:** Joxemanuel Irigoien. **Zuzen-daria:** Aitor Arotzena. **Publizitatea:** Kulturkari, S.L. **Administrazioa:** Amaia Goia. **Erredakzioa:** Aitor Arotzena, Raket Gofñi. **Berriemaileak:** Mikel Illarregi, Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Jaione Otxandorena, Alba Fernandez, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Ana Mari Etxeberri, Frederick Berruet, Angela, Ihintza eta Eneko, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olgarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Asier Gogortza, Raket Gofñi.

Kolaboratzaileak: Raket Amigo, Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketak...

Inprimategia: Gertu. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi eta Sarako udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortziritako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea, Zugarramurdiko Akelarre Elkarteak...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	2.400 Pta.
Ipar Euskal Herria	180 Libera
Europa	4.600 Pta.
Amerika	16.500 Pta.



Aldizkari honek Nafarroako Gobernaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNEN GAIA

Eguberriak etxetik kanpo



Enekoren eskutitza edo marrazkiak jasotzea, berekin «bis a bisa» izatea... edozein opari material baino politagoa da

Espe Aranibar Berako Eneko Zestau presoaren ama

Bigarren Eguberriak izanen dira etxean Eneko falta zaigula, baina bere falta egunero somatzen da, egunero eta orduro. Hor azpian daramazun zerbait da. Hemen hotz egiten badu, han zer hotz kenduzina egiten ahal duen oroitzen zara, beroarekin gauza bera. Kaiola hartan sartuak daudela, azken finean kaiola baita. Eguberriak egun bereziak dira, baina bertze besta egunak bezala, guk egin ditugu bereziak. Nahiago dut egun bereziak ez direla pentsatu. Etxean ospatuko dugu, baina ez beti bezala. Eta haiek ere saiatuko dira pentsatzen ez direla egun bereziak, ez direla besta egunak, biharamona izanen duen bertze egun bat baizik. Egun bat bertzearen ondotik antolatzen dute, hortan saiatzen dira. Hasieratik egutegiak eramaten dizkiegu eta badakite zer egunetan dauden. Adibidez, gizarte presoek aunitan ez dakite astelehenean edo jai egunetan bizi diren, akaso etxekoekin harreman handiegirik ez dutelako. Ezinezkoa da beretaz ez oroitzea, baina besta eguna, eguraldi onak bezala, obligazioak sortzen dizkigu, bertzerik gabe. Eguraldi ona egiten duenean, kanpora atera behar duzu, besta eguna denean ongi pasatu behar duzu, kontent egon behar duzu... ez da zergatik horrela izan behar. Gizarte presioa da, etxean ederki egoten ahal zara eguraldi onarekin, bestarekin ere gauza bera. Inguruko poza somatzen da noski, aunitan poz artifiziala izan arren, baina gu bertze egunak bezala bizitzen saiatzen gara, hori gairitu egin behar duzu, hobeki sentitzeko. Garai honetan ez dugu opariak bidaltzeko ohiturarik, nahiago dugu bere urtebetetzea probetu. Beraiek ere ez dute opariak ateratzeko aukerarik, ez dute tailerrera sartzeko modurik, ezin dira liburategira sartu, zigorraren barrenean dauden baldintzak dira... baina guretzako oparirik ederrera bere eskutitz bat jasotzea da, bere marrazkiak, hagitz adierazgarriak eta politik hartzea, berekin bis a bisa izatea... edozein opari material baino politagoa da eta gero gehiago oroitzen zara gauza horietaz. Olentzerotan zerbait elkar trukatzeko dugu, Erregetan deus ere ez.



Gabon Gauan Estatu Batuetako bertze familiekin elkartzeko gara

Roger Bergman Estatu Batuetako Etxalarren

11 urte egin ditu hemen bizi naizela eta jadanik ohituratu naiz Eguberrietan familiarik urrun egoten. Hasieran arras zaila izan zen. Han nik hiru anai ditut eta emazteak 5 anai-arreba ditut. Familia arras handia gara. Nire emaztea aurtentzen aste batez joanen da bere etxera. Estatu Batuetan Eguberria ospatzeko ohitura handia dago, bestarik handiena dela erran daiteke, familiarik biltzen diren egunak. Han etxeak koloretako argiekin apaintzen dituzte, guk ordea ez dugu ohitura hori Etxalarren. Apaintutako pinua jartzen dugu eta haren azpian opariak jartzen ditugu. Eguberri egunetan goizean goiz, guk opariak ematen dizkiegu haurrei eta haiek guri ematen dizkigute. Jainkoak bere semea eman zigun gu salbatzeko, horren islada da guk elkarri opariak ematea. Gabon Gauan Estatu Batuetako bertze familiekin elkartzen gara eta Eguberriko abestia kantatzen dugu. Ez dugu Errege eguna ospatzen, ezta Olentzero edo Santa Claus. Ni artzai protestantea naiz eta guretzat Jesukristo da irudirik inportanteena eguberrietan.



Gehien harritu zidan ohitura 12 mahatsena izan zen, arras dibertigarria da

Segundo Orellana Ekuadoriarra Baztanen

Bigarren Eguberria pasako dut Baztanen. Joan den urtekoa arras gogorra izan zen, etxetik urrun, familiarekin egon gabe. Aurtentzen haren daukat eta nire andregaiak lanik egiten ez badu ederki ospatuko ditugu Eguberriak. Ekuadorren Eguberriak hemen bezalatsu ospatzen ditugu, beno, han indioilarra labean egina jateko ohitura dago. Familia guztia biltzen gara etxe berean eta berandu arte solasten eta kantatzen egoten gara. Paperezko eta oihalezko panpinak egin eta erretzen ditugu, izpiritu txarrak uxatzeko edo. Hemengo ohituretatik gehien harritu zidana 12 mahatsena izan zen. Arras dibertigarria da, aurtentzen lan egitea tokatzen bazait ere, akitu eta segidoan aterako naiz Urte Xaharra ospatzera, berdin du Urte Berriko 8ak badira ere. Familiarekin telefonoz izanen dut kontaktua. Amak batez ere erraten dit han ikusi nahi nauela, faltan botatzen nauela. Birtartean nik hemen jendea ezagutzen joan naiz eta haiekin besta egitea espero dut. Errege eguna ospatzen ohi dugu ere Ekuadorren.

• IRAKURLEAK MINTZO •

Euskararen osasuna zaindu dezagun

2001 Hizkuntzen Urtea da Europan. Nazioartean hizkuntzen inguruko kezka eta ardura gero eta handiagoa da, eta horren lekuko dira hainbat instituzio, erakunde eta forotan hizkuntza aniztasuna gordetzearen alde arnaututako agiri, dokumentu eta adierazpenak.

Horrek, nolahi ere, ezin du beste errealitate bat estali. Gaur egun, oraindik ere, hizkuntza txiki asko desagertzeko arriskuan dago eta beste askok garapenerako arazoak daukate. Besteak beste, euskarak. Eta are gehiago euskarak Nafarroan, azken aldian bere garapena eta normalizazioa oztopatzen duten neurri ugari ezarri baitu Nafarroako Gobernuak. Ez da kasu bakarra, baina bereziki larria da osasungintzan euskarari eta euskaldunon, herritarren hizkuntz eskubideei ematen zaien trataera. Urte askotan osasun zerbitzu euskalduna izatea udalen eta herritarren eskakizuna izan den arren, eta behin eta berriz gai honen garrantzia azaldu eta agertu den arren, aurreratu beharrean atzera pausu nabarmena dakarren dekretua onartu du Nafarroako Gobernuak. Lehen ere herritar euskaldunen hizkuntza eskubideak osoki betetzen ez baziren, are makurragoa da oraingo egoera: euskaraz jakitea eskatuko den lanpostuen proportzioa benetan murrizta da, eta ez du herritarren errentzat euskarazko atentzioa ziurtatzen. Ez herri erdaldunetarako, ezta euskaldunen arteko ere. Egoera bereziki larria eta

salagarria da bi arrazoi hauengatik:

1.- Administrazioarekin, kasu honetan osasun zerbitzuarekin, bertako hizkuntza erabiltzeko eskubidea urratzen da, nabarmen. Nazioartean sinatzen ari diren hainbat dokumentuetan, besteak beste, eskubide hori aitortzen zaio herritarri. Dekretu honekin, ordea, eskubide hori ezerezean gelditzen da.

2.- Osasun zerbitzuan eta atentzioan komunikazioa ezinbesteko tresna izaki, hainbat herritarri, herri euskaldunetako haurrak eta adinekoak bereziki, kalitatezko osasun zerbitzua jasotzeko zailtasunak jartzen zaizkie. Izan ere, hobekien eza gutzen duten hizkuntzan, bere-berea den hizkuntzan ez atenditzeak, komunikazioa zaildu egiten du eta, ondorioz, arazoak sortzen dira.

Honen guztiaren ondorioz, 2001eko ekainean 640 hautetsik sinatutako "Euskararen Normalizazioaren aldeko Nafarroako Hautetsien Institutio-Ekimena" rekin bat eginenez, honakoa aldarrikatu eta eskatu nahi dugu:

1.- Nafarroa osoa eremu elebiduna da, herri guztietan baitaude bi hizkuntza ofizialak menperatzen dituzten herritarrik. Guk gure udalerrietan biztanle guztien hizkuntza eskubideen eza gutpena eta euskararen berreskurapena bermatu nahi ditugu, euskara normaltasunez erabil eta ikas ahal izan dezaten

2.- Euskararen ofizialtasuna, gaztelaniarena bezalaxe Nafarroa osora zabal dadin aldarrikatuko dugu, nafarron arteko egungo diskriminazioak ezabatzeke eta euskara-

ren berreskurapena bul-tzatzeko xedez.

3.- 2001eko irailaren 203/2001 dekretua, baina baita ere euskararen normalizazioa oztopatzen duten gainerako lege-xedapen oro, bertan behertu utz ditzala Nafarroako Gobernuak.

4.- Osasun zerbitzuan, eta baita administrazioaren gainerako zerbitzu eta ataletan, herritarren hizkuntza eskubideak babestuko dituen neurri normalizatzailerik har ditzala Nafarroako Gobernuak.

Tomas Azpiroz Alkoz. Leitzako Alkatea eta Nafarroako bertze 10 alkate eta zinegotzi.

Erdiz, nor zara?

Erdiz non den badakizu? Ez? Bada, Iruritako erreka inguru zoragarri bat da, hainbertzerainokoa, Europak komunitatearendako toki interesgarri (Lugar de interés comunitario LIC) izendatzeko tan dela. Izen honekin Europak, ekologikoki balio berexia dituzten inguruak babesten ditu: Bazkatoki komunalak zer diren segur denek bada-kizuela. Baztango nekazariak, beren haziendak bazkatzeko behar-beharrezko tokiak dira. Baztanen hiru daude, eta hauetako garrantzitsuna Erdiz da. Erdizen erran molde batez, 600 behi buru baino gehiago bazkatzen dituzte, ehundaka abre. Eta isiltasuna, badakizue zer den isiltasuna? Gauza aunitz izaten ahal da, baino tartean, inori deus erran gabe, altxapean gauzak egitea izaten ahal da... Pentsa multinazional baten adarra (Magnetitas Navarra) etortzen

dela eta, administrazioaren ongi ikusiarekin -Baztango udaletxea, diputazioa...- herrian inork, deus jakin gabe, toki bat zilotzen hasten dela. Hara non: jabego komunal leko bazkatoki batean, duen balio ekologikoa-erengatik Europak komunitatearendako toki interesgarri izendatu nahi duen inguru batean. Zilotu? Bai! Zundaketak. 16 zundaketa puntu, horietako bakoitza egiteko, bertze hainbertze pista-ekin, eta zundaketak egin ahal izateko beharrezkoak diren lur berdintze eta zelaitzeekin. Zerendako? Bistan da, lur azpian zer material dagoen ikusi eta alimaleko harrobia egiteko... Non? Erdizen doike! Txutxumutxu bat, zundaketen aurrekontua 210 milioikoa da. Zerengatik ixilpean eta altxapean? Hori jakin nahiko genuke, zuk ez? Hemen zenbait galde-modu, buruan gehiago oraino. Jakinminez eta kezkatuta? Bada etor zaitetz abenduaren 22rako antolatu dugun mendi ibilaldi informatiborak. ERDIZ BIZIRIK!

Joseba OTONDO.

Sahararekin elkartasuna

Errefuxiatu sahararren kanpamentuetarako urriaren 8tik 19ra egin zen janari bilketak izugarriko arrakasta izan zuen. Dakizuen bezala, bilketa honen arrazoiak honako hauek izan dira:

• 1975. urtean sahararrak beren lurraldea uztera behartu zituztenetik, 170.000 saharar inguru Aljeriako errefuxiatu guznetan bizi dira, ia bate-

re baliabiderik eskaintzen ez dien eremu batean. Hau dela eta, laguntza humanitarioari esker bizi dira.

• Azken hilabeteetan laguntzaren %25 murriztu diete. Hau dela eta, kanpamentuetan goseak daude.

Neurri batean egoera honi aurre egiten laguntzeko, estatu osoan hainbat kanpaina jarri dira martxan. Besteak beste, arropa, botikak, eskolarako materiala, janaria... bildu dira eta 125 kamioi betetzeko adina material bidaliko da errefuxiatuen kanpamentuetara.

Nafarroari elikagaien bilketa egokitu zitzaion eta 40.000 kilo elikagai bildu ditugu bertan. Eskualde honetan (Bortzirriak, Baztan, Malerreka, Lekunberri, Leitza, Goizueta, Areso eta Arano) 5.610,5 kilo elikagai bildu dira. Honako hauek hain zuzen: 1.150 kilo pasta, 426,5 kilo lata, 1.165 kilo lenteja, 1.365 kilo arroz, 512,5 kilo garbantzu, 660 kilo azukre eta 331,5 kilo babarrun.

Hau dela eta, Saharar Herriarekin Elkartasun Taldeak eskerrak eman nahi dizkie herritar eta udal guztiei, beraien parte harzteagatik.


Saharar Herriarekin Elkartasun Taldea

Erredakzioaren oharra

Aitzineko alean azalean atera genuen argazkia Xabi Otero argazkilarik egina da. Bakoitzari berea.

ttipi-ttapa.

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



Gara, 01eko azaroaren 26a

«Badakigu bortxatuak izanen direlako emanen dituztela noizbait gauzak. Nola? Ipar Euskal Herriko biztanleriaren gehiengo Departamenduaren garrantziaz konbentzitu izanen den heinean eta gehiengo honek eskaerari lehentasuna emanen diolarik, lortuko dugu galdetzen duguna. Gaur egun bada gehiengo bat baina berentzat

aldarrikapen hau ez da lehentasunezkoa».

Jean ANIOZBEHERE
Sarako auzapeza
Gara 01-11-26

«Duela hogeit urte batzuek uste zuten desafio bat zela. Gaur egun oharzen gara Gure Irratiak toki zabala betetzen duela».

Dani DUHALDE
Gure Irratiko kidea
Egunkaria 01-12-09

• 11 GALDERA LABUR •



Iñaxio PERURENA «PERU» Osasunako tekniko leitzarra

- **Teknikoa omen zara, zer da hori?**
Osasunaren aurka jokatu behar duten informe teknikoak egiten ditut Lotinarentzat.
- **Futbola, aldeko iritzia eta kritika txiki bat besterik ez bada?**
Joko aberasgarria da, izugarriko aukerak ematen ditu 22 lagunaren arteko hartu emanetan. Espektakuloak jende asko mugitzen duenez, «handiak txikia irensten du».
- **Noren entrenatzaile edo laguntzaile izatea gustatuko litzazuke?**
Dudik gabe, Irureta edo Lotinarena.
- **Irakaslea ere bazara, zerk bultzatu zaitu?**
Lan egitearen beharrak eta gero pertsonekin lan egitea, maiz zaila izan arren, oso gustokoa dudalako.
- **Lagunartekoa edo bakartia?**
Biak. Bakoitza bere momentuan.
- **Egun libre batean, ze plana?**
Goizez bizikleta, atsaldez kirola ikusi.
- **«Gazteagoen» bizimodua ikusiz...?**
Inbidia ematen dit. Gazte eta osasuntsu izan, garrantzitsuena niretzat.
- **Zerk kezkatzen zaitu egun?**
Beste guziaren aurretik, oinarria baita, batak bestearekiko errespeto falta.
- **Afganistanekoak zer pentsarazten dizu?**
Gerra guztiak bezala, tristura.
- **Zer sentiarazten dizu Eguberriak?**
Urtean zehar ez garela modu naturalean bizitzen.
- **Bertsolaria edo bertsozalea ere bazara. Zer bururatzen zaizu?**
«Adrenalina lasaitzekotan/beharrezkoa da parranda/Sagardotegi baten babesen/hartzen dugu guk indarra.

Irungo errep. - BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximiniak
Angeluak	Érlaiak
Orma antzinak	Moldurak
Leihoak	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marrazkiak
Pilareak	

*Abujardoa Mazoia
Zuhar antzekoa Txapetua

ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK

DROGUERIA MOLINERO

• DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •

2.000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina
10 minututan zuk nahi duzun kolorea
Profesionalentzat prezio berezia

J. RAMOS

Zolak akutxilatuta eta barnizatzen ditut

© 948631342 BERA • © 948637172 LESAKA

OBRA PROIEKTUAK

- ✓ Etxe berriak eraikitzeko
- ✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
- ✓ Urbanizazio proiektuak
- ✓ Obra-zuzendaritza

Udalendako aholkularitza-zerbitzua hirigintza lanetan

BIDASOA
arkitektura bulegoa

Bittiria, 45 • © 948 637 503 • LESAKA

MERKATARITZA

Bertziko Merkatarien Elkartek hiru sari eder zozketatuko ditu

Sariak produktuz eta erosketa bonoetaz osaturik daude

ttipi-ttapa

Urtero legez Bertziko Merkatarien Elkartek erosleen fideltasuna eskertu nahi du. Erosketekin batera kontsumitzaileek txartel berde batzuk jasoko dituzte urtarrilaren 2an eginen den zozketan parte hartzeko. Egun hartan 3 sari emanen dira, bakoitzean, elkarteko produktuekin betetako, 750 euroko (125.000 pezeta / 5.000 libera) balioa duen zaretza eta 300 euroko erosketa (50.000 pezeta / 2.000 libera) bonoa emanen dira. Txartel hauek abenduaren 31 bitarte banatuko dira Bertziko Merkatarien Elkartean bilduak diren saltoki guztietan. Saritutako zenbakiak agertuko ez balira bigarren zozketa urtarrilaren 16an eginen da.

SARIA NOIZ GASTATU

Boleto saridunek otsailaren 1ean balioa galduko dute, beraz



RAKEL GONDI

Abiadura murrizteko 35 zulo egin dituzte Zozaiatik Mugaireraino

Egun hauetan Belatetik beiti abiadura handian jaitsi direnak, susto galantak hartu dituzte abiadura murrizteko, Zozaiako bidegurutzetik hurbil jarri dituzten 35 zuloekin. Toki horretan berriki Oronozko saihesbideko lanak hasi ziren eta horregatik istripurik ez gertatzeko zuloak egiteko baimena eskatu zen. Hasieran konkorrak ere jarri zituzten, baina segidoan kendu dituzte.

erosketa bonoa urtarrilaren 31 baino lehen gastatu beharko dute saridunek Merkatarien Elkarteko dendetan.

Aitzineko urteetan zozketa hau berandua go egin ohi da, baina

aurten merkatariek urtarrilean euroaren etorrerarekin lan bikoitza izanen dutenez, sariak lehenago banatzea erabaki da. Honela bada eguberrietan murgildurik gaudenean, hiru zor-

tedunek sari potoloa jasoko dute.

Bertziko Merkatarien Elkartek emandako erosketa bonoak euroetan izanen dira erosleak ere txanpon berri- ra ohituratu daitezten.

MUSIKA

«Nafarroa, Hitza Dantza» bertsolari eta musika taldeen diska berria

Gor disketxeak «Nafarroa, hitza dantza» diska editatu du. Bertan estilo desberdinetako 17 abesti biltzen dira, nafarroako hainbat bertsolari eta musika taldeen soinu eta letrekin. Entzulea bertsolaritza eta euskarara hurbildu nahirik egin da CD hau. Eskualdeko bertsolari eta musikariek ere bere txokoa izan dute grabaketan: Estitxu Arozena eta Barricada, Buitraker eta Xabier Terreros, Hemendik At eta Julen Zelaieta, Itturri eta Bittor Elizagoien, Leihotikan eta Iñigo Ibarra, Maider Ansa eta Xabier Legarreta, Petti eta Iñigo Olaetxea, Skalarriak eta Joxe Juan Zubieta, Tximeleta eta Ekhine Etxepeteleku, Ufesuete eta Mikel Alzuart eta Ziorek eta Manolo Arozenak izan dira berzteen artean abestiak kantatu eta jo dituztenak. Bertso guztiek gai nafarrak dituzte abiapuntutzat eta bertsolariak taldeekin elkar- tzerako orduan hurbiltasun geografikoa eta estiloak hartu dira kon- tuan.

Lanchas

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera © 948630735

ZUBIONDO JATETXEA

Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia

BORTZIRI
UNSION ANAIAK
sukalderako haltzariak

ERAKUSKETA
Bereau etxea • LESAKA
Tel eta Faxa: 948 637 266

Javier Manterola
TEKNIKO
INSTALATZAILEA
iturgintza • gasa • kalefakzioa
Tfnoa: 948 630 031 • BERA

© 948631076 • BERA

BERA

Eztabaida sortu da Altzaten aparkatzeko debekuarengatik

Komertzioetako jabeen arrenkurengatik aldatu du legea Udalak

Asier GOGORTZA

Altzate karrikako 20 merkatarik beren keza agertu zioten Udalari, aparkatzeko debekuaren ondotik kalte ekonomikoak jasan ditzutela salatuz. Udaleko ordezkariekin bildu ondotik behin-behineko konponbide batera ailegatu ziren. Horrela, banaketa-bilketarako estazionamendua 15 minutura luzatuko da, eta horretarako bazterreko marra horia zuriz pintatu dute jadanik.

Modu berean, Udalak argitaratu duen bando batean eskatzen zaie Ibardin eta Larungo merkatariei beren langileak lamoteneako parkinean bil ditzatela.



SHISHA P.

Ortziral honetan, abenduak 21, Sisha Pangma Bortzirietako espedizioaren diapositiba emanaldia izanen da Berako Kultur Etxean. Arratseko 8etan hasitekoak dira. Abenduaren 19an, berriz, bertze mendiko diaporama bat izanen da toki berean. Patxi Goñi mendizale nafarrak Everest espedizioak argazkiak proiektatuko ditu arratsaldeko 8etatik aitzinera. Irunberri-Laudio espedizioaren diaporamari "La traición de la luna" jarri diote izena.

FLASH

Kultur Batzordearen aurrekontua

Guztira 90.400 euroko aurrekontua izanen du Berako Kultur Batzordeak heldu den urterako (kalkulagailua hartu beharrik ez izateko, 15 milioi pezeta pasatuxe). Iaz baino milioi erdi pezeta gehiago erabiliko dira, beraz, kulturari, nahiz eta Herriko Etxeko aurrekontu orokorrak dexente eginen duen beheiti.

Bertso saioa Kultur Etxean

Abenduaren 29rako bertso saio dotorea antolatu du Berako Euskara Batzordeak. Andoni Egaña, Sustrai Colina, Amaia Agirre eta Iñigo Olaetxea bertsolariak urteko erreposoa egin beharko dute bertsoan. Jon Abril izanen dute gaijartzaile. Kultur Etxean eginen da saioa, arratseko 8etatik aitzinera.

Baraualdia

Amnistiaren Aldeko Batzordeak eta Etxerat kolektiboak baraualdia antolatu dute urte hondarretarako. Hogeitalau orduko lau txanda izanen dira abenduaren 21ean hasita, eta Alzateko Ikastolan izanen da protestaldia. Txanda aldaketa bakoitzean elkarretaratzeak izanen dira, arratseko 8,30etan hain zuzen. Urtezahar arratsean, berriz, urtero bezala presoan aldeko enkartelada eginen da Alzate karrikan.

OLENTZERO BURUHAUNDIA...

Entendimentuz jantzia...

Abenduaren 24ko bazkalondan eginen da olentzeroren irteera. Ikastetxe guzietako olentzeroak auzorik auzo ibiliko dira 15,30etatik aitzinera eta gero Herriko Etxeko plazan elkartuko dira arratsaldeko 5etan denon artean olentzeroari harrera egiteko.

Arratsaldeko 6etan, berriz, Gure Txokoa elkarteko helduen olentzeroa ateriko da karriketara barna.

Horra, horra...



Iriarte-Echandi, s.l.

- Aholkularitza
- Artekaritza
- Aseguruak

Kanttonberri | BERA • Tel eta Faxe: 948 631 169

ALZURI

- Sukalde tresneria eta opariak
- Landare eta loreak

Tel.: 948 630 370 • BERA

JARRANE - GOZOTEKIA

Alzate, 19•948630786 •BERA

LESAKA

«Zugarramurdiko sorginak» estreinatuko du Mairu taldeak

Igande honetan udal pilotalekuan aurkeztuko da herriko antzerki taldearen bigarren lana

Aitor AROTZENA

Herriko Mairu antzerki taldeak bere bigarren lana taularatuko du igande honetan, abenduak 23, arratsaldeko 19:00etatik aitzinera udal pilotalekuan. Joan den urtean «Trizikloa» antzezlana izandako arrakastaren ondotik, aurrean Fernando Domenech-en «Zugarramurdiko Sorginak» izanen da aurkeztuko duten lana, oraingoan ere Ramon Albisturen gidaritzapean. Joan den urteko lanean bortz antzezle aski izan zuten antzezlana jende aitzinera plazaratzeko, baina «Zugarramurdiko Sorginak» lanean partaide gehiago izanen di-

ra, bai taldeko kide berriak, baita antzezlanean partehartze berezia duten Tantirumairu euskal folklore taldeko dantzariak. Izenburuak dioten bezala, XVI. mendean Zugarramurdin sorginkeriarekin lotutako gertakariak, epaiketak eta zigortzeak taularatuko ditu Mairu taldearen lan berriak.

Preso eta iheslarien aldeko Eguberriak

Amnistiaren Aldeko Batzordea eta Etxerat erakundeek antolatuta, preso eta iheslariak gogortuko dira Eguberri hauean. Abenduaren 24ean, Olentzeroa ate-

rako da 10etan Beko Errotatik. Bazkaria izanen da Arranon eta arratsaldean kalejira abiatuko da leku beretik. Abenduaren 28an, enkartelada mugikorra abiatuko da arratseko 8etan plazatik. Abenduaren 28tik 30era baraualdia eginen da. 29an, arratsaldeko 6etan solasaldia izanen da eta 8etan elkarretaratzea. Akautzeko, Urtezahar egunean elkarretaratzea eginen da.

Salbatore baselizaren inaugurazioa

Moldaketa lanen ondotik abenduaren 2an ireki zen berriro Salbatore baseliza. Mezaren



TTIPI-TTAPA TB

20 behi, 72 zaldi abere eta ahare bakarra, Benito Elizondok Arantzatik ekarritakoa, aurkeztu ziren aurtengo ferietan. Beraz, azkeneko urteotako feriarik ederrena izan zen azienda kopuruari dagokionez. Esmetako behietan, Makukobordako Luis Olaetxeak eraman zituen lehen eta hirugarren sariak. Bigarrena Jose Antonio Mujikak eraman zituen. Haragitako behietan, lehendabiziko hiru sariak Berreuko Juan Antonio Prietok sakeleratu zituen. Zaldi azientan, lehen saria Gabriel Altzugaraiak etxeratu zuen, bigarrena Fermin Otxotek eta hirugarrena Antonio Anduezak.

barnean, Joxe Irigoienek bertso sorta ederra eskaini zion Maximo Hernandorena zenari. 500 lagun inguru bildu ziren Salbatoren, ermita ttikia utziz. Musika eta hameketakoa ere eskaini zen.

FLASH

Urpean igeri egiten erakusteko zentroa

egin gogo du Mikel Biurarena beratarak Txakain aldean. Horretarako herrilurra eskuz aldatzeko baimena eman du Nafarroako Gobernuak.

Paleta-goma txapelketaren finalak

Batzoki elkarteak bosgarren aldiz antolatutako paleta-goma txapelketaren finalak —elite mailakoa eta lehen mailakoa— abenduaren 22an jokatuko dira, arratsaldeko 17:00etatik aitzinera.

KIROLA

Beti Gazteko nesken taldea azken postuan dago momentuz

Azken urteetan Kontxako hondartzan eta joan den urtean zelai handian Kopa jokatu ondotik, aurrean Gipuzkoako Ligan ari dira Beti Gazteko neskek. Juana Aleman eta Idoia Etxepare entrenatzaileen errauntara ari diren gehienak lesakarrak dira, baina bi

etxalartar eta igantziar bat ere ari dira. Iaz kopan lortu ez zutena lortu dute aurrean, berdinke ta bat etxetik kanpo. Dena den, astetarteko entrenamenduetan gogor saiatu arren, azken postuan eta garaipenik lortu gabe segitzen dute oraingoan. Animo bada!



AITOR AROTZENA

Denboraldiko lehen garaipena eskuratzeko lanean ari dira Beti Gazteko neskek.

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 948 627 514
Beheko Plaza 8, LESAKA

BEKO
Lore eta landareak
Frain auzoa • LESAKA
☎ 948 637826

ANIA
Janaridena
Bittiria 41 • 948 637518 • LESAKA

KATJU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak
☎ 948627573 • LESAKA

XATURETKEA
Zitzi
JATETXEA
Tfnoa: 948637027 LESAKA

ETXALAR

«Horra, horra gure Olentzero» bertze urte batez

80 urte bete dituzten zazpi lagun omendu ditu Larraburua elkarteak

Joseba eta Nerea

Neguaren etorrerarekin batera Olentzero, bisitan etorriko zaigu. Heldu den astelehenean, abenduak 24, ilunabarreko mezaren ondotik egingen du agerria elizako atarian. Herriko trikitilari eta txistularien laguntzaz nahiz bere gibeletik ibiliko diren hainbat herritarren konpainian buelta egingen du, ohiko lekuetan geldialdiak eginez berari eskainitako kantak abesteko. Honen ondotik bildutako haur eta guraso guztiei luntxa emanen zaie Elutsa ostatuan.

Ela-ela, nor da-nor da...

Urte zaharrari adioa emateko eta urte berria ongi hasteko Etxalarren ohitura da urteko azkeneko egunean haurrak taldetan biltzea etxe etxe eskian ibiltzeko. Baseritar arropajantzi eta eskusarea hartuz etxalarren urtetan kantatu den koplaz zahar luze



JOSEBA OLAGARAI

Oraindik sasoi ederrean mantentzen dira aurten 80 urte bete dituztenak.

hau eskainiko diete herriko nahiz baserrietako etxeokandere eta nagusi guztiei.

80 urtekoei omenaldia

Abenduaren 3a, Xabierreko San Frantzisko eguna, Nafartarron besta izateaz gainera Larraburua jubilatuko elkarteak bazkidearen eguna ospatzeko aprobetxatzen du. Urtero be-

zala 80 urte bete dituzten kideei omenaldia egiten zieten orogarribat emanez. Aurten omendutakoak hauek izan ziren: Beko-Zubiko Jose Maria Berrueta Zubieta, Aldalurko Bordako Juanito Maia Sanzberro, Enrique Gutierrez Quintana, Elixalaiko Berardo Sanzberro Arburua, Olazarreko Prudentxio Sanzberro Elizalde, Jose Paul

Corrales eta Mokorreko Bernardo Danboriena Sanzberro. Honetaz gain Larraburua jubilatuko elkarteak Paul eta Anuntxiri aipamen berezia egin zien azken 10 urte hauetan egin duten lana eskertuz.

Egunari goizeko mezarekin eman zioten hasiera, bereziki aurten hildako bazkideak oroituz. Eguerdiko 13:30etan 65 kide bildu zituen baz-

FLASH

Internet ikastaroa

Kultur Etxearen barrenean Axura enpresa puntu teknologikoa martxan paratzeaz arduratzen ari da eta Nafarroako emakumearen institutoaren laguntzaz internet ikastaroa antolatu dute. Abenduaren 10ean eman zioten hasiera ikastaro honetan izena eman zuten 30 lagunek. Bi taldetan banatzen dira, lehenbizikoa goizez 10etatik 12etara eta bigarrena arratsaldeaz 6etatik 8etara. Udaletxean aritzen dira bildutakoak, 20 orduz luzatuko den ikastaro honetan.

Jostunen bazkaria

Santa Luzia eguna, abenduak 13, egun berezia izan zen jostun guztientzako beraien eguna ospatu baitzuten. Hori dela eta, Bortzirietako jostunak elkartu eta bazkaria egin zuten Etxalarko Haritzpe jantzetxean. 28 lagun bildu ziren giro ederrean, datorren urtean beriz errepikatzeko intenzioz.

karia egin zuten Larraburua egoitzan eta omenaldiaren ondotik dantzaldia izan zen Ramontxoren eskutik. Hemendik zorianak aurten 80 urte bete dituztenei.



IGANTZI

Herria ezagutzuz

Abesbatzaren kontzertuak hasiera emanen die Eguberrietako beste

Ibai Retegi, Iñaki Sein eta Imanol Goienetxe Belateko txapeldun

Oskar TXOPERENA

Urtero eguberri inguruan egin ohi duen bezala, heldu den larunbatean, abenduaren 22an, eskainiko du Igantziko Abesbatzak bere kontzertua, ilunabarreko mezaren ondotik. Isabel Lakarrek zuzendutako taldeak, garaiari dagozkion eguberrietako kantez gain, kanta herrikoak, eliz-kantak eta polifonikoak ere abestuko ditu. Tartean, musika eskolako haurrek ere ariko dira ikasitakoa erakusten, batzuk kantatzen eta bertzeak pianoa edo txistuarekin. Ondotik, Abesbatzaren eguberrietako zarea zozketatuko da.

Belate Txapelketa

Abenduaren 9an jokatuko ziren Bidasoaldeko Belate Elkartearen Txapelketaren finalak. Lehengo batean erran genuen bezala, hamahiru pilotari aritu dira jokatzen eta horietatik lau sartu ziren finaleran. Alebinetan, Ibai



OLAETXEAKO EKUTITAKO ARGAZKIA

Erakusketa izaten da urtero Kultur Egunetako ekitaldirik jendetsuena. Argazki zaharrak ziren aurtengo gaia eta nahiko lan izan zuten Igantziko Biltokikoez etxeetatik bildutakoak txukun eta ikusteko moduan paratzeko. Motz gelditu zen eguna erakutsitako argazki zoragarriez gozatzeko, denbora bateko xuri eta beltzezkoak, mende hasierakoak ere, oraingoan batera enbidirik ez baitzuten. Nostalgiaz betetako eguna, nolani ere. Gainerakoan, hitzaldiek aitzineko urteetako ildo beretik segitzen dute, jende gutti samar bilduz, autengoek hogeiren bat lagun bakoitzak. Igande arratsaldean Baratzondon egindako antzerkian, berriz, hirurogeita hamar lagunetik goiti bildu omen zen. Ez dago batere gaizki.

Retegi, Imanol Goienetxe eta Iñaki Sein izan ziren txapeldunak. Azken biei egokitu zitzaie finala jokatzea eta partida ederra jokatuko behar izan zuten Fagoaga eta

Alzuri aranztarrei irabazteko. Benjaminetan, berriz, azpitxapeldun gelditzearekin konformatu behar izan zuen Beñat Txoperenak, finala galdu egin baitzuen

Berako Andoni Riope-drerekin batera, Hondarribiko Artola eta Manterolaren aurka. Partiden ondotik sari bana hartu zuten txapelketan aritutako pilotari guziek.



Postariaren etxola

Berrizaun auzoan, errepedearen bidegurutzearen ondoan dago postariaren etxola. Eraikin xumea izanik ere, laister beteko du mendea. 1903an egin zuten Arantza eta Igantziko Herrikoetxeek, orduko postariak, Juan Manterolak, eskatuta. Manterolak bere 1895eko eskarian dioenez (37.1/399), goizeko ordu batetan iristen da Iruñeatik heldu den korreoa eta aterperen baten beharrean dago esperuan eman behar dituen orduetan: *«se le construya una caseta para albergarse en las horas de la noche»*. Azkenean, erran bezala, 1903an bi herrietako ordezkariak bildu eta gaur egun ezagutzen dugun etxola egitea erabaki zuten. Igantziko Herrikoetxeak, ordea, baldintza bat paratu zion: *«que pernocte en la caseta y distribuya la correspondencia de la Villa a primera hora»*. Geroztik anitz aldatu dira bidegurutzearen zirkulazio baldintzak eta gehienek ustetan dagoen lekuan ez du traba bertzerik egiten. Korreosetik heldu diren zurrumurruek oraingo lana betetzen ez duela luze iraunen diote.

BERRIZUN Makinaria eraikuntza
Moldaketak eta despiezea
Mantenimendu mekaniko
Torno, fresadorak, errektifikadorak

Igantziako Bentak • © 948 627572 • Faxa: 948 637508

zapatadenda.
kalotxa.
osagarriak.
konponketak.

Legia 36 Bera 31780 Nafarroa 948 631516

HORTZ KLINIKA
Dr Guy Cadillon
3 dentista espezialidade guzietarako

HORTZ ESTETIKA

ARANTZA

Eguberrietarako ohiko prestaketetan ari dira herritarrak

Eguberri bezperan karrika buelta egingen da olentzerorekin kantuan

Nerea ALTZURI

Gain-gaínean ditugu Eguberriak. Herritarrok modu batean edo berztean ikusi eta sentitzen ditugu hurreratzen ari zaizkigun egun hauek. Baina orokorrean herrian, beti agerian gelditzen dira urtean behin aintzina eramatzen diren data hauen erres-toak.

Eguberrietako kanta polit batek dioen moduan «Hator-hator mutil etxera, gaztaina ximelak jatera...», aspaldian ikusi gabeko familiariko edo lagunaren bisita jasoko duen herritarrik bada. Garai batean, mendi lanetan aritzen ziren herriko mutilek etxean goxo-goxo pasatzen zituzten egun hauek. Frantzia aldeko mendietan lanean aritu



Haurrek ez ezik, gazteek ere ateratzen dute Olentzeroa azken urteotan.

ARTXIBOKOA

diren mutilak aunitz dira herrian, gaur egun mendimutirik ez dagoen arren. Hauen etorrera ospatzeko besta eguna izaten zen herrian. Urte batzuetan ohitura gal-

dua izanagatik, bada urte saila Aterpek, bolada hartakoak oroituz aizkora apostua eta bertso bazkaria antolatzen dituela Errege bezperan.

Baina hurbilago

Olentzero eguna dugu. Haur, gazte edo adinekoa izan, denek ilusioa izaten dute, baina batez ere olentzeroak egiteko eskolaumeen, irakasleen eta gurasoen

Hurrengo urterarte!

Aurtengo hondar ale honetako hitz hauek herriatar guzietan Eguberriak ahalik eta hobekien pasatzeko, desio hori erakusteko bide dira. Era berean, Urteberrion herritarrei eta bertaratzen den orori! Aranztarrok, lagunartean badugu ohitura «Eurrik arte» errateko, elkarri aio errateko modu bat izanik, baina oraingoan «hurrengo urterarte» erran beharko dugu!

ilusioa somatzen da. Urtero bezala, ikasgela ba-koitzekoek dotore egingen dute karrika buelta. Baina Eguberri bezperako ekintza honetan, haurrekin batera, gazte, guraso... gehiago animatu zen iaz. Ea aurtengo ere, lagun gehiago biltzen den taldera baxeritarrez egoki jantzi-ta. Eguberri eguneko plazako haurrentzako jokoek ere urte aunitzeko segida dute. Eguerdia parteko beta hau, olentzeroak errez akautzen da: inon ez bezala, Arantzian olentzeroak sutan erreak akautzen dutelako, eta inoiz ez dugu jakin zergatik.



MARTIKO
*Gure baserrietako
produktuak*

© 948 625016 • Fax 948 625036
Alkaiaga Industrialdea • BERA

**ALBERGEA
JATETXEA**
© 948 634179
ARANTZA

SALAZONES UDANA, S. L.

*Importaziozko lehen kalitateko bakailu gazitua
Bakailu gezatua eta kongelaturia, erabiltzeko prest*

Alkaiaga ind. • Banarta, 8 - 23. pabilioia • LESAKA • Tel. 948 631536 • Fax: 948 631550



PERTSONAIA

M^a Carmen ELIZALDE

Santa Luzia egunean omenaldia jaso zuen jostunak

Azken bi urteetan bezalaxe, aurtengoan ere Doneztebeko Udalak omenaldia eskaini dio Santa Luzia egunean bizi osoa jostungintzan eman duen doneztebar bati. Maria Eraso eta Patxi Astizen ondotik, aurtun Mari Carmen Elizalderen txanda izan da. Mari Carmen ez da ekitaldi publiko eta omenaldien lagun, baina joan den ortzegunean eskainitakoa aski merezia zuen. Izan ere, berak onartzen du ez duela gogoratzen Honorio Taberna dendan lanean noiztik ari den. Hori bai, urte hauetan josi dituen arropak bilduko balitu, dendan ez zen tokirik izanen, seguruki aski. Mari Carmenek mezan jaso zuen urrezko titarea. Bertsolariek, eskulan erakusketak eta hurrendako antzerkiak osatu zuten egitaraua.

MALERREKA

Mankomunitateak ahozko tradizioa jasotzeko beka eman du

Amaia Apalalauza eta Maite Lakarrek jaso dute

ttipi-ttapa

Joan den azaroaren 3an, ahozko tradizioa jasotzeko beka emateko epaimahia bildu zen. Honako hauek osatu zuten epaimahaia: Andrés Iñigo euskaltzaina, Jesús Goldaraz, Doneztebeko erretorea, Fernando Etxeberria UNEDeko irakasle ohia, Patxi Salaberri NUPeko irakaslea eta Antxone Otxandorena, Doneztebeko eskolako irakaslea. Idazkari lanetan Mankomunitateko eskara teknikari Mikel Garcia aritu zen, izan ere Malerrekako Mankomunitatea da beka deialdia egin duena. Aurkeztutako lau proposamenen artean, epaimahaiak Amaia Apalalauza Olló eta Maite Lakar Iraizoz Iruñeko gazteek prestatutako proiektua aukeratu du.

Bekadunek lanean ahal bezain pronto hasateko gogoia adierazi zuten eta Bertizaranatik emanen diote hasiera egitasmo honi.



ADINEKOAK

7.500 erretiratu mugiarazi ditu aurtun Arkupeak elkarteak

Abenduaren 13an egin zen Donezteben Arkupeak jubilatutako elkarrearen urte akabailako besta. Urtero bezalaxe, ospakizunaz gain, aurtengo ekitaldien balantzea eta heldu den urterako egitasmoaren berri eman zuen Felipe Ganboa lehendakariak.

Guzira 7.524 lagun mugiarazi ditu aurtun elkarrearen urte akabailako besta. Horietatik 5.733 egun bakarreko txangoetan izan dira. 85 urte eta urrezko ezteiak betetzen zizutenen omenaldian 820 lagunek hartu zuten parte, urte akabailako bestan bezalaxe. Gimnasia

bestan 502 pertsona eman zuten izena. Aralar, Arantzazu eta Lezoko Gurutze Saindura egindako bidaiek 400 lagun baino gehiago bildu zituzten. Egungo gehiagoko bidaietan 740 pertsona joan ziren eta 85 egun eman zituzten etxetik kanpo. Hamalau herrietan egindako bestetan 1.051 pertsona hartu zuten parte.



APARAN, S. A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 456 080
 Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE



BELARRA

OSTATUA - JATETXEA

Amezitia karrika • DONEZTEBE
 Tfnoa: 948 45 03 06



GAZTANDEGIA

Etxeko
 Ardi Gazta

Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • **SUNBILLA**

ITUREN

Ibintza kultur taldearen lokal berria ireki zen Kultur Egunen barnean

Argazki lehiaketaren sariak ere banatu ziren

Iban ISASI

Azken hameka urtetan bezala, Ibintzak Kultur Egunak antolatu zituen abenduaren 6tik 8ra. Egun hauetarako, Kultur talde honek bere egoitzaren inaugurazioa prestatu zuen. Iturengo Udalak Medikuaren etxeko sotoa utzi die taldekideei heldu diren bortz urtetarako. Ibintzak, bere aldetik, gela hori moldatu du: tarima paratu, mahaiak egin, armairuak... Hori horrela izaki, bulego tiki baina aski erabilgarria gelditu da.

Eta egoitzaren ate irekitzearekin hasi zuten Ibintzakok aurtengorako prestatutakoa. Lehengo eta gaur egungo partaideak gonbidatuak izan ziren, baita herritar ugari ere. Taldeko bi kidek 11 urtetako historia kontatu zuten, nola hasi ziren lanean eta nola segitu duten gaur egun arte. Lokalean pinxoak eta txanpaina banatu zen eta gero talo

jatea egin zen Herriko Etxeko ganbararen sulkaldan. Orduan ireki zuten ateak Argazki Rallyari buruzko erakusketak. Eta argazkien artean Uba-obaba-duneskatxaren historia kontatu zuen Berako Patxi Hernando ipuin kontalariak.

Biharamonean, eskulan tailerra zegoen tikiendako eta handixeagoendako ginkana izan zen herrian barna. Ondotik 50 gaztetxo elkartu ziren Ibintzak, eskolaren laguntzarekin antolatutako bazkarian. Haur jokuak izan ziren arratsaldan eta Anna-Anna filmea ikusi zuten ganbaran.

Larunbatean partxis lehiaketa izan zen eta, ondotik, Argazki Rallyko irabazleak aditzera eman ziren. Puntuazio onena Nuria Bereauri suertatu zitzaion, goiko argazkian erretzen ikusten den neskaren argazkiarekin, Bigarren Mila Erregerena izan



Goitian, Nuria Bereauri buruz egindako argazkia, erakusketan ikusten izan zirenen artean punturik gehien jaso zuena. Beheitian, Mila Erregerenak udazkenari buruz egindako egindako argazkiak, bigarren saria jaso zuen.

zen, beheitiko azaroari buruzko argazkiarekin. Guzura 21 lagun aritu dira argazki rallyan. Akitzeko, larunbat arratselan afaria izan zuten herriko Ostatuan.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Astelehenetik asteazkenera 9-13tara eta 15-19etara
• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., © 948133328•133346. Faxa: 948133713
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- ☞ Langile Autonomoak
- ☞ Nekazariak eta mendi-langileak
- ☞ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☞ Lan-kontratutarako laguntzak
- ☞ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☞ Diru-laguntza ezberdinak
- ☞ Kontabilitateak
- ☞ IVA eta IRPF
- ☞ Errenta aitortpenak
- ☞ Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- ☞ Bideragarritasun planak



GRUPO ANA ORDOA DE A

IRACHE

SECCIONES ÚNICA DEL NORTE.

© 900 704704

FUNERARIA ZERBITZUAK

LESAKA-DONEZTEBE

24 ordutako zerbitzua

Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletik edozein herritara trasladoak

Tfnoa 948 637404.....LESAKA
Tfnoa 948 450475.....DONEZTEBE
Tfnoa 948 580971.....BAZTAN

KIROLA

Hirugarren Paxaka txapelketa hamalau bikoterekin abiatu da

Zazpina taldeko bi multzotan ari dira lehen fasean



tti-pi-ttapa

Abenduaren zubi luzean hasi zen Laxoa elkarteak hirugarren urtez antolatutako paxaka txapelketa. Aurten goan hamalau hirukotek eman dute izena, iaz baino bat guttiago. Lehendabiziko fasean zazpina hirukoteko bi multzotan banatuko dira eta multzo bakoitzeko lau lehendabizikoak sailkatuko dira final laurdenetarako.

Lehen jardunaldia Irurritako Aranabia pilota plazan jokatu zen eta ustegabekorik handiena Gipuzkoako Zubietako hirukoteak eman zuen, joan den urtean azpitxapeldun izan ziren Etxeberria, Arraztoa eta Artazkoz doneztebarrei irabazi egin baitzieten, 9-8, partidu ikusgarri batean. Joan den urteko txapeldunek, Irurritako Urrutia anaiek eta Elizaintzinek sasoi onean daudela erakutsi zuten eta 9-5 irabazi zieten Ballarena, Mitxeleena eta Perotxena elizondarrei.

Bigarren jardunaldia aste hondar honetan jokatzekoa zen Arraiozko pilotalekuan. Laxoa elkarteak kideek txapelketa honetako jardunaldi bat Gipuzkoa aldera eramateko asmoa ere erakutsi dute. Zubieta eta Villabona inguruan aritzen da jendea paxakan eta errebotean, inguru hartako hirukotea ere ari da txapelketan eta modu polita izanen zen kirol honi zabalkunde gehiago emateko.



Zure bizitzako fitxaketarik hobereena

P E N T S I O P L A N A K

Zure bizitzako partidurik garrantzitsua irabazi nahi baduzu, irabazteko espiritua duen talde batekin fitxatzea duzu hobereena: **Rural Kutxako Pentsio Planen** taldea. Lehen mailako 5 Plan erretiro bikaina segurtatuko dizutena.

Izan ere, horietako bakoitzarekin errentagarritasun **interesgarria eta %47a bitarteko aurrezpen fiskala izateko** aukera duzu. Eta hori, ekarpenetan malgutasunik handienarekin eta Plan batetik bertzera aldatzeko aukerarekin, inolako gainkosturik gabe.

Zatoz Rural Kutxara eta aukeratu zure bizitzako Plana.

RGDirua • RGBat Errenta Finkoa • RGBi Mistoa 40
RGHiru Mistoa 75 • RGLau Errenta Aldakorra

Eta orain, abenduaren 31 bitarte, sekulako oparia eramanen duzu zure Plana kontratatzerakoan.



www.cajarural.com/navarra

Garrantzitsua
zu zara



ABELTZAINZA

Haragitako behien subentzioan aldaketak izanen dira

2002. urtetik goiti aldaketak izanen dira kupoan

ttipi-ttapa

Behitegietan azien da gazteagoak izateko helburuarekin, hemendik aitzinera behi kupoaren %20a migekin betetzen ahal da (orain arte %10a zen onartutakoa). Konparazio batera, behi kupo hamahiru deretxokoa edo gutxiagokoa bada, ez da migarik deklaratu beharrik izanen. 14 behiko kupo bada, berriz, guttienez bi miga deklaratu beharko dira. Miga gisa onartzeko zortzi hilabetetik goitikoa behar du izan.

Baina aukera horretaz gain traba bat ere izanen da, kupo hamahirutik goitikoa den kasuetan: gutxienez kupoaren %15 migekin erabili behar da. Konparazio batera, kupo hamaseikoa bada, guttienez bi miga deklaratu behar dira, nahitahienez.

MIGEN DEKLARAZIOA	
KUPOA (deretxoak) MIGAK GUTXIENEZ	
13 edo gutxiago	0
14	2
15	2
16	2
17-23	3
24-29	4
30-36	5
37-43	6
44-49	7
50-56	8
57-63	9
64-69	10

tienez bi miga deklaratu behar dira, nahitahienez.

Holako kasuetan, eta behi/miga proportzioa juxtu xamarra baldin bada, kasu eman behar da. Izan ere, proportzio hori erretentzio epe guzian mantendu behar baita, hau da, abuztu-iraila bitarte. Beraz, tartean miga batek erdi-

tzen badu, behi gisa konstatuko da, eta horren ordez bertze miga bat izan beharko da baserrian. Beti ere 8 hilabetetik goitikoa. Koadroan ageri da kupoaren arabera, zenbat miga deklaratu behar diren gutxienez.

Dezimalak borobiltzeko modua aldatu dutenez, adi egon kopuru berriei.

ARANO

Euskara Zerbitzuaren bertso afariak 70 bertsozale bildu ditu

San Roke elkartearen giro bikaina izan zen goizaldera arte

Kontxi KLABER

Abenduko lehen larunbatean, hilaren 1ean, Euskara Zerbitzuak antolatuta, San Roke Elkartearen bertso afaria izan zen. Andoni Egaña eta Maialen Lujanbio ziran iragarritako bertsolariak bainan azken orduan Maialen gaxo zegoela eta Loidisalletxe inguratu zen.

70 bat lagun elkartu ziren afaltzeko eta gero beste hainbat bertsozale inguratu ziren

bertsoak entzutea. Oso giro polita sortu zen bertan eta goizaldera arte bertsoak izen genituen, hortik aurrera jarraitu nahi zuenarentzat taberna ireki zen.

Olentzero

Urtero bezala, Olentzero egunean gazte koadrila bat baserri ibiliko da eskean, Olentzeroa bizkarrean hartuta. Gero, San Roke elkartearen bazkalduko dute.

PINTURAS
BLACK

KOLORE EZBERDINETAN
GOTELE • BARNIZ • DEKORAZIOA
AURREKONTUA KONPROMISURIK GABE
TEL: 646 27 92 10 (AITOR)
DONEZTEBE (NAFARROA)

ARANTZA
ZYRGINDEGIÀ

Jose Miquel Errandonea

Klase guztietako
zurgin lanak

Osiña auzoa • 948-634068 • ARANTZA

BOAN
TAILERRA
CITROEN Banatzailea

AUTO BERRIEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA

948 63 06 23 • BERA

GANIX
Tailerrak

Iturlandeta, 9 • 948 630669 • BERA

IBILGAILUEN MEKANIKA
ETA ELEKTRIZITATEA
FIAT Zerbitzua



NEGUKO PROMOZIOA
HUSQVARNA MOTOZERRA
45.000 pezetatik (270,46 euro)
hasita katea eta 5 litro olio
opari

BLOK BAT
TAILERRAK

«Bitxo»

Santiago 10, behea • ELIZONDO

MOTOZERRAK



HUSQVARNA
STIHL
JHON SERED

Haragi xehetzeko
makina
3 modelo
prezio onean





Landibar

ZENTRO KOMERTZIALA

Urdazubiko
Landibar Zentro Komertziala
egun-pasa egiteko bisitaleku aproposa

Jatetxea, alimentazioa, opariak, perfumeak...
300 m² markarik ezagunenekin

Usain-onak, kosmetikoak...

Euskal Herriko
preziorik hoberenak

Eguberri eta Erregetako lote bereziak opariekin
Opari on bat egiteko
Urdazubiko Landibar Zentro Komertziala

Informazioa ☎ (0034) 948 599 400

EGUNERO IREKIA



Mendiko materiala

**Kirol
Oinetakoak**

Txandalak

Astore
Trango
Diamir



IPARLA KIROLAK

Santiago, 51 - 948 580 585 • ELIZONDO




- Lurrindenda
- Apaindegia
- Oparidenda

- Larruan, boltsoak, karterak...
- Lurrinetan lehen markak
- Painuluak, pashminak...
- Bitxiak
- Solarium zutikakoa

Ameztiak karrika, z/g • DONEZTEBE

948 450 163



JUAN J. PIKABEA

GIZONEZKOEN ARROPADENDA

DIESEL



BAKEROAK:

Levis, Dockers, Lotus.

BARNEKO ARROPA:

Punto Blanco, Pierre Cardin.

JERTSEAK:

Neurri handiak

Galtzak 68 taila bitarte.

Atorrek 52 taila bitarte.

Ameztiak z/g • DONEZTEBE

Tfnoa: 948 451 670



EL DESVAN

Altzari rustiko
eta kolonialak • Opariak


Bidasoa, 4 • BERA • 948 630154

Biur

ZERBITZU INFORMATIKOAK

- ▶ Jokuak
- ▶ Ordenagailuen salmenta eta konponketa
- ▶ Programazioa eta web orriak
- ▶ Enpresendako mantenua

Kanttonberri, 4 31780 BERA
Tfnoa.: 948 631083
E-Posta: biur@bortziri.com
http: www.bortziri.com




ARTURO

Altzate, 20
© 948 630136

BERA

jantxidenda
Etxeko arropa
Mertzeria

Abenduak 22, 29 eta ilbeltzak 5
larunbat
arratsaldetan irekia



KOLOKAN

DEKORAZIO
ESTUDIOA

IZURZANDI TA KARRIKA, 3. 31780 BERA 667717681

-altzariak, edredoi nordikoak,
mantak, lanparak, opariak, sofak,
altzari auxiliarrak, alfonbrak,
kortinak, aukeran.

TITULATURIKO DEKOREDORA

-proiektu eta erreformak
etxebizitza eta lokal komertzialetan.

**BESTA ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUEGU!!**

Ostargi Optika

**Eguzki eta
kiroletako
betaurrekoak**

Barometroak

termometroak

Bidasoa, 8

BERA

948 630 753

EMPOIO INARMANI





948 580 061
ELIZONDO

Marixus

Egu

San Miguel auzoa
948 450 922
DONEZTEBE



**URTE ZAHARREKO
AFARIAK**



ATERPE
erretegia

Urdai azpiko eta solomo iberiarra

Eskarola entsalada piper erre
eta otarrainska frijituekin

Frito nahasiak

Rape eta ondoz betetako hojaldrea

Txangurroz betetako legatza

Solomotxoa foie-erara
oportu saltsarekin

Kafe biskuita

Eguberrietako gozokiak

Ardoa eta kaba

Kafea, kopa eta puroa
Zoriontasun mahatsak

Prezioa: 6.800 Pta.

Erreserbak egiteko deitu
948 45 00 28

Egizu zoriontsu

oparizkiozu eguzkitako betaurrekoak

Argibel Optikan

Donezteben Intzakardi 7 • ☎ 948 450345

Elizondon Santiago 62 • ☎ 948 581391



*Betaurreko zaharrak
biltzen ditugu, beharrea
dauden herrialdeetako
jendeari eramateko.*

*Urte Zabar arratserako jantzi itzazu
zure begiak koloretako lentillekin*



ARO?

**Gazte arropadenda
berria
DONEZTEBEN**

ARO



Amezitia kalea, 7
Doneztebe

GOIZUETA

Xalto Sariaren finala larunbat honetan eskolako komedorean

Nafarroa eta Iparraldeko zortzi bertsolari gazte hoberenak izanen dira abenduaren 22an

Esteban AROTZENA

Larunbat honetan, abenduak 22, arratsaldeko 16:30etatik aurrera eskolako jangelan burutuko den saioa bukatutakoan jakinen da Xalto Sariaren seigarren edizioaren irabazlea. Nafarroa eta Iparraldeko zortzi bertsolari gazte hoberekek kantatuko dute bertan. Goizuetako final haundian partaide izan aurretik lau kanporaketa gogor gaindituak izanen dituzte, ederki entrenatuak etorriko dira beraz. Gure

herrian ospatzen den sariketa honen garrantzia adierazteko nahikoa izanen da aurreko bost edizioen irabazlearen izenak oroitaraztea: lehenengo biak Estitxu Arozenak eraman zituen, hurrengoak Xabier Silveirak, eta bi azkenekoak Xabier Legarretak eta Amets Arzallusek, hurrenez hurren.

Xalto Egunean, antzerkia eta bertsoak

Bertso gaiekin jarraituz, aipa dezagun



ESTEBAN AROTZENA

Bertso zaharretan oinarritutako antzezlanak eskaini zituzten eskolako ikasleek Xaltoren egunean.

azaroaren 30ean ederki aski ospatu zutela aurtien ere herriko eskolan San Andres eguna, Xaltoren Eguna alegia. Bertso zaharretan oinarritutako hiru antzezlan eskaini zituzten aurrena ikasleek, eta ondoren bertso-paperlehiaketaren irabazleen berri eman zuen Joxema Leitzak, Patxi Etxeberria, Xumar Bakero eta Jon

Narbarte izan zirelarik hiru maila ezberdinetako irabazleak. Hernaniko bertso eskolakoen bapateko saioarekin bukatu zen urtero-urtero Andres Narbarte «Xalto»ren oroimenez ospatzen den festa.

«Berri txarrak» herrian

Gaur egungo rock musika taldeen artean

ospetsuenetakoa den Berri Txarrak-en emaldia izanen da herriko Gaztetxean igande honetan, abenduak 23, gaueko 23:30etatik aurrera. Aralar Musika Eskolaren hogeita bosgarren urteurrenaren ospakizunen barrenekoa da Lekunberriko lauko tearen ekitaldi hau. Sarrrerarik ez omen da ko-bratuko.

ARESO

Guraso Elkartearen Neguko Festa ospatu zen abenduaren 8an

Farmazia lau orduz irekiko da

Juana Mari SAIZAR

Abenduaren 8an, Guraso Elkarteak antolatuta Neguko Festa ospatu zen. Kalejirak hasiera eman zion eta pilota partiduak eta dantza saioak izan ziren herriko umetxoekin. Talak ere jan zituzten goizez. Bazkaria Pake-Toki elkartearen egin zen,

Maddalen Lujanbio eta Imanol Lazkano bertsolariekin. Jaionek, bere kantu tailerrean presatutako abestiek ere alaitu zuten bazkalondoa. Arratsaldez, trikita-txa txapelketa egin zen. Aurtien ez zen herriko bikoterik izan, baina gero erakustaldia eskaini zuten. Txokolatadan bu-



ARTXIBOKOA

Goma gaineko sokatira utzi du herriko taldeak. Otsailean hasiko dira entrenatzen lur gainean aritzeko.

kaera eman zion aurtengoari.

Farmazia irekiko du Maite Plazak

Maite Plazak farmazia

irekitzeko baimena eskatu du Udaletxean. Lau orduz irekiko du Udalak duen baxu batean, herriari beste zerbitzu bat eskainiz.

JATETXEA bere
ETXEBIZITZArekin errentan
ematen da **GOIZUETA**n.
Baldintza ezin hobekak.
© 948 514122 • GOIZUETA

LEITZA

Iñurrieta industrialdea, zubia eta Olaberriko rotondako lanak hastear

Industrialdea Pagozelai enpresak egingen du 375 milioi pezetatan

Mikel ILLARREGI

Suedin, S.L. enpresak industrialdeko urbanizazio proiektua eta Olaberriko rotonda eraikitzeke proiektua eginak ditu. Lehenengoaren aurrekontua 402.918.560 pezetakoa da. Honetaz gain, lurren erosketa eta zuzendaritza lanen gastuak gehitu behar dira. Lurrak eskuratzeko bi aukera eman dizkie Udalako oraingo lur jabeek: metro koadroko 1.500 pezetako ordaina ala lur trukaketa. Industria Departamentuak 82.890.141 pezetako dirulaguntza onartu du. 54.527 metroko eremuan, 31.450 metro dira partzeletan. Hemen Pagozelai enpresak aurkeztu du aurrekonturik bideragarriena, hain zuzen 375.640.973 pezetakoa eta berari eman zaio. Abenduaren 15ean hasi eta hamar hilabetetan bukatu behar dira. Olaberriko zubia ere, Suedin S.L. enpresak hartu du bere



MIKEL ILLARREGI

Abenduaren 15ean hasi beharrak ziren Iñurrieta industrialdeko lanak eta hamar hilabeteko epea izanen dute lanak bukatzeko.

gain. Honetarako Toki Administrazioak 17,5 milioiko dirulaguntza bideratu du.

Azkenik, rotondaren lanak 46 milioiko aurrekontua du. Orain Herri-lan Departamentuari lanak nork garatuko dituen zehaztea falta zaio. Dena den, hau 2002. urtean egingen da eta Nafarroako Gobernuak

hartu du bere gain gastu guztia.

Oraingoz bi langile

Construcciones Metálicas Honar S.L. enpresak adierazi duenez, oraindik ez dakiten langile kopurua hartzeko asmoa dute, Iñurristan ezarriko duten lantegirako. Oraingoz bi langi-

le hartu ditu eta orain beste bi hartzeko asmoa du, makinista eta soldadorea. Udaletxeko iragarki oholean edota Honar enpresaren bulegoan bertan informazio gehiago.

Mankomunitate eta Udaleko langileak «berrikasten»

Urriari hasi eta ilbeltzaren erdi aldera arte, bi orduko saiotan, Udaleko idazkaritzako, irratiko eta Mankomunitateko hainbat langilek, beste zenbait herritarrekin batera, aspaldi honetan Euskaltzaindiak idazterakoan jakin beharreko arauak ikusten eta ikasten ari dira. Guztira 12 lagun baino gehiagok izena eman du IKAk antolaturiko ikastaro honetan.

FLASH

Bisaurin-era mendi irteera

Abenduaren 30ean, Mendibil mendi taldeak Bisaurinera irteera antolatu du. Bezperan abiatuko dira eta Etxoko kanpineko aterpean lo egin ondoren mendi hau igotzen saiatuko dira. Elurra izanen denez, beharrezkoa den materiala eraman beharko da. Izenak aldeztu aurretik ohiko tokietan, abenduaren 27rako.

Nortasun Agiriaren tramitazioa

Orain arte hilean behin edo bi hiletik behin tramitatu zitekeen NANA edo karneta udaletxean. Baina orain zailago jarri nahi digute eta jakin arazi dutenez, eskaera gutxi omen dagoenez eta «garestiegia» ateratzen zaielako, 100 laguneko udaletxeko idazkaritzan eskatu arte ez dira herrira etorriko.

Ateka Beltza Herriarentzat

Abenduaren 21ean, iluntzeko 20:00etan «Ateka Beltza Herriarentzat» Herri Ekimenak deitutako «Adierazpen askatasuna, Utzi Pakean Herria» lempaiean manifestazioa egingen da.

Aurrerak 7-1

Preferente mailan jokatzen duen Aurrerak sekulan lortu duen garaipekin handiena lortu zuen Zintronikoko Cirbonero taldearen aurka, 7 eta 1 irabaziz. Herriko taldearen biziberritzearen seinale da emaitza hau. Liga hasera kaxkar baten ondotik –zortzigarren partidura arte ez zuten punturik lortu– pixkanaka zuloatik ateratzen ari dira.

KULTURA

Eguberriak ekitaldiz gainezka datoz

Ohikoa denez, Eguberriak kultur ekitaldiz gainezka datoz. Zinemaren, urtea ezin hobe burutzeko filme arrakastatsua ikusgai izanen da abenduaren 21ean, 22:30etan eta 22an 19:30etan: «Los Otros».

Abenduaren 23an, 20:00etan, Markeliñe antzerki taldearen eskutik, «La

garboSA» antzezlanaren izanen da zinemaren.

Abenduaren 24an, 12:00etan eskolatik abiatuta, abesti eta doinu alaituta kalejira izanen da. 18:30etan Olentzeroren etorrera.

Urtarrilaren 4ean, 18:30etan, erregeentzako gutun bilketa eta 24:00etan, zintzarri jotzea.

Urtarrilaren 5ean, 18:30etan kabalgata eta erregeei ongietorria.

BAZTAN

Elizondo, Elbete eta Amaiurko biztanle batzuk medikuz aldatu beharko dute

Orain arte mediku batek bertzeak baino aise eri gehiago zituen

Rakel GOÑI

Amaiur, Elbete eta Elizondoko biztanle aunitzek egun hauetan Osasun Etxearen karta bat jasotzen ari dira, mediku aldaketa egin behar dela adierazten. Hemendik aitzin Elbete, Berro, Ananborda, Etxaide eta Beartzungo biztanleek Mirentxu Ibañez izanen dute medikua eta Ana Cariñena erizaina. Elizondoko gaintzeko biztanleak eta Amaiurkoak Mari Carmen Elizainzin izanen dute medikua eta Milagrosa Pérez erizaina. Orain arte mediku batek bertzeak baino aise eri gehiago zituen zerrandan eta honek kontsultarako aunitz esperatu behar izatea ekartzen zuen. Jendea bi talde hauetan banatu nahi da, bi medikuek kopuru berdina izan dezaten. Halere nahi duenak aldaketa honeri ezetz erran diezaioke. Medikuen hautaketa librea dela eta, nahi duenak bi hilabete ditu aldaketa errefusatzeko.



Iñaki Etxebere, 6 urteko haurrak marraztutako eguberriko postalak iragarzen du Gorrieneako postalen erakusketa.

Postalak eta jaiotzak Gorrienean

Eguberri hauetan ere Bozateko Gorrienea museoan, postalen eta jaiotzen erakusketa izanen dira. Abenduaren 15etik Urtarrilaren 6a bitarte eskualdeko haurrek egin dituzten Eguberrietako Postalak ikus ditzakezue. Bertzalde «Jaiotza Baztanen» izeneko erakusketa zabalik egonen da bertan.

Fernan Gorostidiren margo erakusketa

Fernan Gorostidi margolari baztandarra aspalditik bizi da Arizkungo Bozate auzoan. Harat bizitzera joan zentetik bere etxean, Xokoran, margo erakusketa bat egiteko gogoarekin zebilen. Azkenean eguberri hauetan izanen dugu Gorostidiren margoak ikusteko aukera, era-

kusketa urtarrilaren 6a bitarte egonen da irekia.

San Atongo zozketa

Urtarrilaren 17an San Antongo zozketa eginen da urtero legez. Abenduaren hasieratik boletok salgai daude herriko dendetan. Bildutako dirua egiten ohi den bezala, Fco. Joaquin Iriarte xahar-etxeari laguntzeko izanen da.

FLASH

Erratzuko Kultur Elkar-tearen zozketa

Erratzuko Kultur Elkar-teak, bertako produktuz osatutako sei zareto zozketatuko ditu urtarrilaren 5ean, Haurren Loteriaren zenbakiarekin batera. Txartelak herriko ostatu eta dendetan eros daitezke, baita izpegiko bentetan ere. Jadanik ohitura bihurtu da zozketa hau Erratzun. Parte hartu eta zorte on!

Pilota partidua Oronozen

Abenduaren 30ean arratsaldeko 5etan, Oronozko Segundo Anaia Frontoian Aspek pilota partidua antolatuko du. Lehen partiduan Zubieta-Huarte, Alzugarai-Eskudero bikoteak aurrez aurre arituko dira. Bigarrenean Galarza Veta Apeztegia, Baleztena eta Imazen aurka jokatuko dute.

Urte berri on

2002ari laster ongi etorria emanen diogu eta urte zoriontsua eta oparoa izango delakoan gaude. Irakurle guzietan urte berri ona opa nahi datzuegu. 2001ean esfortzu berezia egin behar izan duzue TTPI-TTAPA ordainduz. Zuen erantzuna ezin hobea izan da, eskarmile!

ORDOKI LIKOREAK
ERRETEGIA
 Tel.: 948453410
 Fax: 948453378
ARIZKUN
 Parrilan egindako haragi eta arrainak

gaztelu scl
iturgintza
 kalefakzioa saneamendua gasa
 © 948 510086 / 510156 • fax: 948 610856 • LEITZA

Gierreserua
OSTATU - JATETXEA
 Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa
 Iturriotz Auzoa • © 592043 • ORONOZ-MUGAIRI

ONASKA
ERRETEGIA
 Euskal sukaldaritza
 Arrain eta haragia brasan
 Bagordiko bidean • ELBETE
 © 948 45 20 88

BAZTAN

Polizia tarteka bakarrik joanen da Elizondora nortasun agiriak egitera

NAN-ak berritzeko eskaera aunitz jaitsi dela diote

Rakel GOÑI

Poliziaren Jefaturak Baztango Udalarari jakinarazi dio tarteka bakarrik joanen dela Elizondora nortasun agiriak egitera. Hauen ustez gero eta jende guttiagok eskatzen dute NANA berritzea eta hortaz gastu handia omen da ekipo mugikorra bertaraztea. Neurri hau urtarrean indarrean jarriko da. Hemendik aitzin nortasun agiria berritu nahi duenak Baztango udaletxean eman beharko du izena eta 100 pertsona biltzen direnean, poliziak Elizondora joanen dira. Zerbitzu honen erabiltzaileari gelditzen zaion bertze irteera zuzenean, Iruñea edo Donostiara joatea da.

Mendi ibilaldi informatiboa Erdizera

Baztanen dagoen Erdiz inguruan barna, mendi ibilaldi informatiboa antolatuko du Inguru hone-



RAKEL GOÑI

Baztango Udaleko bulego honetan berritzen ditu poliziak NANak

tan, Magnesitas de Navarra enpresa 16 zundaketa egin ditu jadanik. Horretarako bertze hainbertze pista eta lur berdintze egin behar izan ditu. Zundaketen xedea, lur azpian zer material dagoen jakitea da eta hauen aurrekontua 210 milioi pezetakoa da. Enpresa horrek duela 20 inguru toki berean zundaketak egin zituen. Erdiz ingurua,

bazkaleku komunala da, nekazaritza molde es-tentsiboan aritzen diren nekazariendako, arront bazkaleku garrantzitsuak. Era berean, Europar batasunak, Erdizeko duen balio ekologikoarengatik, Komunitatearendako Intereseko Tokia (LIC) izendatze-ko borondatea erakutsi zuten berriki. Zundaketak animaleko kaltea egiten ari dira inguruan, bai-

no kezagarriena, urte gutti batzuen buruan abiaraziko duten harrobia da. Guzti honi buruz argibideak emateko, mendi ibilaldi informatiboa antolatu da 22an. Elizondoko plazatik abiatuko dira goizeko 8:30etan, autotan Pitzamarreraino joateko eta gisa horretan Erdizko inguruetan barna bi orduko ibilaldia egingen da.

FLASH

Iñaki Mihura garaile Burlatan

Iñaki Mihura korrikalari arraioztarrak abenduaren 9an Burlatan ospatu zen jubencil mailako lasterketan, garaipena lortu zuen. Lasterketa hau Nafarroako txapelketarako baliagarria da.

Arraiozko laxoako plazaren irudia

Miguel Indurain Fundazioak pilotan aritzeko emanen dituen dirulaguntzak iragartzeko, Arraiozko laxoako plazaren irudia erabiliko du.

Farmazia berriak jartzen hasi dira

Aurten egin den lege aldaketari esker farmazia eskaera aunitz egin zen Baztanen. Hori dela eta baimen batzuk emanda daude jadanik eta, Elizondon eta Oronozen hasiak dira farmaziak eraikitzen. Arizkunen ere farmazia ireki berri dute.

Musika Eskolaren kontzertua

Abenduaren 22an arratsaldeko 8etan Elizondoko elizan, Baztango Musika Eskolako ikasleek eguberriko kontzertua eskeinituko dute.

Jon Franzesena zendu zen

Elizondoko alkate ohia eta Iturria Edera Uren Elkarteko lehendakaria zen Jon Franzesena, eritasun luze baten odotik, azaroan hil zen. Alkate eta zinegotzi zela Elizondoko herriarendako eta Baztanendako, lan aunitz egin zuen Jonek. Doluminak beraz familia-ri une latz hauetan.

Eskisaroi jatetxea
Jaime Urrutia, ☎ 948 580 013
ELIZONDO

ARROPA DENDA
Gazteendako era guzietako arropa
Lanerako arropa

BURKAITZEA
ostatu erretegia
Zugarramurdiko bidea, 3 km.
☎ 948 599280 • URDAZUBI



SOULE
Hileta artea
Tel: 948 453444 • 629 659583
ARIZKUN



SARA

Bai euskarari akordioa sinatu dute herrian 40 elkarte eta komertsantek

Euskal herriko xapelgoa aitzina doa

Aña Mari eta Fred

Sarako 40 bat elkarte edo komertsantek Bai Euskarari akordioa izenpetu dute abenduaren 1ean Herriko Etxean. Ekitaldiaren hastapean, Jean Aniotzbehere auzapezak azpimarratu du Herriko Etxeak ekimen horrekin bat egiten duela eta lan horren sustatzaileak eskertu ditu. Gehitu du ohore bat zela herriarentzat, Akordio hori izenpetzen duen ipar Euskal Herriko lehena baita eta onartu du lan zaila eta luzea izanen dela, baina «*denen borondatearekin*» helburua erdietsiko dela.

Ondotik, Amaia Beyrie, prozesua hurbiletik segitzen duen pertsonak esplikatu ditu akordioaren nondik norakak. Lan hori egun hauek hastekotan da, eta izenpetzaileak arloka bilduko dira abendu honetan berean.

Sinaketa ekitaldian, Michel Oronoz, Euskal Konfederazioaren ordezkariak erran du Sara ez dela nola-nahika hautatua izan, baina bere «*euskalgoa*»rentzat famatua delakotz. Denbora berean, azpimarratu du saratarrek

«*erresponsabilitate handia*» dutela, bertze herriak begira baidituzte eta horientzat eredu izanzen baitira. Horretaz gain, biziki pozik agertu da ikusirik horrelako desmarxa bat hasia zela Britainian ere, bertako mintzairaren salbatzeko.

Euskal herriko pilota xapelgoa

Euskal Herriko xapelgoa aitzina doa eta saratar frango ari dira lehian. Orain arteko emaitza onak ikusiz agian aintzineko urtetan bezala finaletako bidea hartuko dute herriko pilotariek. Pasakan, lehen mailan Elizeri Jean Jacques eta Arrieta Mattin ari dira. Esku huska, saratarrik ez da lehen mailan baina bigarrenen bi bikote ari dira, Mixel Berra eta Tito Mariluz; Xabi eta Ramuntxo Errandonea anaiak. Hirugarren mailan bortz bikote dira lehian: Sébastien Hiriart eta Christophe Saint Jean; Pierre Arotzarena eta Mizel Dibart, Frederik Barreneixe eta Patrick Mariluz, Iñaki Arrieta eta Xan Urbistondo, Iñaki Aramendi eta Panpi Elizalde. Junior mailan De-



Abenduaren 2an Larraburuko Bordako Juan eta Carmenek bere urrezko ezteiak ospatu zituzten. Carmen Ursuegi Zugarramurdiko Etxenikeko Bordan sortua da eta Juan Leizagoien Etxalarko Olako Bordan. Orain dela 50 urte, 1951ko azilaren 28an Etxalarren esposatu ziren eta 1963an Sararat etorri ziren. Bederatzi haur altxatu dituzte eta oraindik familia haunditzen doa: 19 iloba eta 2 iloba ttiki dituzte. Goresmenak Carmen eta Juan. **Segi pixkor!**

nis Endara eta Xabier Joanena gazteak ari dira. Suerte on deneri!

Errugbi kontu

Sarako Izarra errugbi taldeak bere bidea segitzen du txapelgoan. Jokalariek jasan min hartzeen ondotik bigarren talderik ez baldin lehenak aitzina segitzen du. Azken bi partidetan, bat galdu du Idron-en (16 eta 11) eta bertzea irabazi Saran Lasseu-

beren aurka (8 eta 6). Txapelketa honen lehen zatia bukatzeko lau neurketa falta direlarik, Basurdeak sailkapeneko bosgarren tokian ditugu. Urruñia lehen postuan da, baina Sarak baino partida bat gehiago jokatu du, 2. eta 3. postuetan dauden Kanboko eta Lasseubeko taldeek bezala. Datozen norgehiagokak garrantzitsuak izanen dira beraz, sailkapen nagusian goiti joateko.

FLASH

Frantziako mus txapelketa

Urtarrilaren 11an, ortziralarekin, arratseko 20:30etan Frantziako 40. mus txapelketako kanporaketak Herriko Etxeko edantegian hasiko dira. Lehiaketan parte hartzeko muslariek ostaturat arratsaldez deitu behar dute urtarrilaren 4a aintzin.

Herri Urratseko materiala

Urtero bezala, Olhain ikastolak Herri Urratseko materiala Herriko Etxeko edantegian saltzeko du. Eguberrikako presentak erosteko tenorea denez...

Kantaldia igande huntan

Abenduaren 23an, igandearekin, arratsaldeko 17:30etan Osasuna elkarteak Arrangoitzeko Biez Bat korallarekin kantaldia antolatu du. Sartzea 20 Libera.

Istripu larria harrobian

Abenduaren 10ean, goizeko 6:30etan harrobian istripu larria gertatu zen. Stéphane Lalanne, 31 urteko gazte landestarra bere kamionak lehortuta zendu zen.

Télèthon-en aldeko ekintzak

Abenduaren 7an eta 8an, Télèthon-en aldeko ekitaldiak Turismo Bulegoaren eskutik antolatu ziren herrian. Aurtentzen, 16.000 libera bildu dira, laguntza ekarri duten guzieren esker.

SAROBÉ
okindegia 
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA


Bizikleta Tailerra
errepide, mendi, trekking
eta haurrentzako bizikletak
Arropa eta osagarriak
Salmenta eta konponketa
Kanttonberri 1, bis • BERA
Fax - Tel: 948-631218


HERRIKO ETXEO EDANTEGIA
MAIXAN ETA VÉRONIQUE
SARA • TEL 0559542519

AZKAIN

Everesteko espedizioan parte hartuko du Fred Lafitte herritarrak

Larunbat goiz guziz merkatua egitea erabaki du herriko kontseiluak

Ihintza, Angela eta Eneko

Munduko mendi haundiena gainditzeko diru laguntza ainitz behar da eta Ipar Euskal Herrian ez da Hegoaldean bezain errex horarako.

Bigarren aldia da Frederic Lafitte 29 urteko Azkaindarra Himalaya-ko 8.000 metroko mendi bat gainditzeko asmoarekin joanen dela. 1999an jadanik David

eta Fernand Gracy Azkaindarrekin Shisha Pangmara joan ziren. Zoritxarrez ez ziren kasoraino arribatu.

Aldi huntan Frederic eta bertze 4 lagun elkartu dira Everest kasorat igotzeko asmoarekin (8850 m). Bere espediziokideak hauek izanen dira: Atarratze-ko Errobert Larrandaburu, Jean-Pierre Lapeyrade Uztariztarra,

Jean-Laurent Tardits Navailles-Angosekoa eta Eric Alcabebe Santagrazikoa. Holako espedizio baten prestatzeko lan haundia da. Urte bat pasatu dute dirua biltzen. Diru laguntza ainitz izan dute bainan oraino gehiago behar dutela diote. Espedizioa 2002ko martxoaren 9an abiatuko da Europatik. Martxoaren 12a eta 26a bitartean,

Nepalen aklimatatuko dira, eta 29an kanpaleku nagusira abiatuko. Gailurra Tibeteko aldeetik igoko dute. Igoera bera apirilaren 8tik maiatzaren 19a bitartean burutuko dute.

Kontseilu nagusiak eta Eskualde kontseiluak espedizioa lagunduko dute. Webgune bat zabalduko dute eta Eskolekin lan berezi bat eramanen dute.



ARTXIBOKOA

Munduko gailurrera abiatuko da Fred Lafitte martxoaren 9an.

Merkatua larunbat goiz guziz

Azken herriko kontseiluan Tapia andereak merkatuari buruzko berriak azaldu ditu. Ekonomia eta enplegu lan taldeak eraman duen ikerketa eta lanen ondotik erabakia izan da merkatu bat irekiko zela plazan larunbat goiz guziz 8etarik 13ak arte. Saltzaileak ingurueta-koak izanen dira. Janaria eta laborantza produktuak saltzen ahalko dira. Hastapenean as-teazkeneatn egitea pentsatua bazuten ere, saltzaileekin eta laborariek izan dituzten hizketen ondotik larunbat goizean egitea erabakia izan da ahobatez.

Bil-Toki eta Terminen Mugaren prezioak goiti

Herriko salak erabiltzeko prezioak ez ziren mugitu azken urte hauetan. Euroaren hurbiltzearekin batera prezioak goititu dituzte. Bil-Toki gela erabiltzeko: 55 € edo 360,77 F (lehen 350 F), Bil-Toki eta sukaldea: 80€ edo 524,76 F (lehen 500 F) Terminen Muga: 55 € edo 360,77 F (lehen 300 F).

EGUBERRIAK

Olentzero Azkainen geldituko da abendoaren 22an

Urte guziz bezala Olentzero afaltzeko geldituko da herrian. Behar bada bizpahiru goxoki izanen ditu zaku zolan. Hotarako kantuak ongi ikasi beharko dira.

Hitzordua abendoaren 22an, larunbata, arratsaldeko 16:30etan finkatua da. Plazatik plazara eginen da ibilaldia herrian barrena, Panpi-

na Olentzeroren pottokarekin. Erran gabe doa kantu batzu eskaini beharko zaizkiola.

Haurrak ere beren esku argiak ekartzerat gomituak dira gan den urtean bezala. Paperak banatuak izan dira ikastetxeetan eta ostaluetan kantuen ikasteko aintzinetik eta lanternak etxean prestatzeko.



ARTXIBOKOA

Larunbat huntan arratsaldeko 4:30etan finkatua da hitzordua Olentzerorekin.

Arratsaldea krakada-afari batekin eta ondo-

tik poteo goxo batekin segituko da.

H. Lopez
iturgintza

- Kalefakzioa
- Gas Instalazioak
- Iturgintza industrialia
- Ureztatze sistemak

Tel.: 948 45 21 26
Mug.: 617 34 99 44
NARBARTE

ZALAIN 948631106
948 630967
Zalain • BERA

Urte akabailako enpresa bazkarietarako MENU BEREZIAK prestatzen dira

PINTURAS LEGUIA S.L.
Rafa: 600 819 640
Jose: 666 235 466
Eztegara 26, 2.C - BERA

Hornatche
Artisan
GOZOTEGIA OKINDEGIA
S.A.R.L. ETOHE-ONA
AZKAIN
Tél. 59 54 01 67

SENPERE

Lizardiako saltegi berriek lanpostuak sortuko dituzte

Luberriako urtegia 2003. urtean eraikiko da

Franck DOLOSOR

Salmenta haundiko dendak irekiko dituzte Lizardian. Zabalduko den Ibarungo lan-ze-laiak itxura aldatuko du artisauek eta industrien ondoan orain saltegiak ere kokatuko direlako. Supermerkatu bat, brikolaia saltegia, eta ondolik ezantzagia eta baita ere jantzi denda zabalak irekitzea pentsatzen du eskualdeko komertzianta batek. Ekonomia garapena da hain zuzen herriko etxearen xedeetarik bat.

Urtarril hastapenean jakinen da nork eraikiko duen Luberriako urtegia

Abenduaren 18an, 3 lantegik beren proiektuak ezagutaraziko dituzte eta handik goiti deliberatuko da nori emanen ote zaion lanen ardurua. 68 602 euroko gastua izanen dute lanek. %25 gobernua



STUDIO DE LA NIVELLE

Gan den urrian, urrezko ezteiak ospatu zituzten aintziran bizi diren Barré jaun-andreak.

gain da, %25 Akitaniaren gain, %30 Pabeko kontseilu nagusiaren

gain eta %20 Urdazurialdeko sindikataren gain.

Urtegia lur eta betunezkoa izanen da, 370 metretako luzaera eta 20 metretako altura izanen du. Ikerketen arabera Luberriako urtegia beharrezkoa da uholdeak saihesteko. 2003an inauguratuko da Dantxariako bidean egiten den obra hau.

Oxtikenekoak elkartearen urteko bilkura

Urtarrilaren 19an, goizeko 10etatik aitzin iraganen da Oxtikenekoak kultur elkartearen urteko bilkura. 2001garren urteko lanen aipamena, 2002garren urteko helburuak, kontuak eta bulegoaren eraberritzeaz ariko dira. Ondotik hameketakoa.

Zaldubi ikastolaren 30. urteurrena

Zaldubi ikastolaren 30. urteurrenako ekitaldien barnean azaroaren 18an kantaldia iragan zen.

FLASH

Telethon

Telethonaren kariatarat afari herrikoia eta ikusgarri jendetsua iragan ziren Ibarrunen. Su-hil-tzaileek sokorri ikastaldiak eman zituzten. Urtarril hondarrean ere halako ikastaroa eskainiko dute, nahi duenak salba dezaketen jostuek zoin diren ikas ditzan.

Gasoil kutsadurak

Azken aldian urdazuri errekan gasoil kutsadurak gertatu dira. DDE erakundearen errantetan, itsas mareekin desagertuko da arazoa baina tartean hainbat arrain hilik agertu dira hazilean.

Autoak Olha aldeko auzoan

Olha aldeko auzoeko bilkurak izan dituzte herriko-etxeako arduradunekin autoen harat-hunatat mintzatzeko. Azkenean, ibiltzeko gaurko norabideak ez dituzte aldatuko. Herriko-etxeok jakinarazi dute Senpereko bertze auzotegietan bezala bide-seinale elebidunak ezarriko dituztela Olhako bi sartzetean.

Urtatseko afaria

izanen da Oxtinekan aurten ere abenduaren 31n, urtero bezala.

RESTAURANT MIGUEL

Ongi zaindutako sukaldaritza
Menuak aukeran

MIGUEL JATETXEA
Ibardingo Lepoa
☎ 948 631209



ANTXITONEA Trinketea

Jatetxea - Ostalua
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Iriarte
ELIZONDO

☎ 948 581807 • 948 581853

Alberto
RETEGI
abokatua

Altzate 17
BERA
☎ 948 630 763

URDAZUBI-ZUGARRAMURDI



RAKEL GOÑI / FOTO MENA

Urdazubiko Errekako Etxeko M^a Joaquina eta Basilia Galainena Etxenike ahizpak laster 90 eta 92 urte beteko dituzte. Biak sasoi ederrean daudela argi ikus daiteke ezkerreko argazkian. Eskuineko argazkian Basiliaren familia ageri da. Bi seme ameriketan ditu Basiliak, hauek Paquito eta Victoriano dira, argazkian ezkerreko aldean goian eta behean daude. Bi semeek ama eta izeba zoriondu nahi izan dituzte, eta urte aunitzez eman dieten maitasuna eskertzeko asmoz oroigarri hau eskeini nahi izan diete.

Abenduaren 26ko mezarekin eta 29ko bazkariarekin egingen dira Alkerdiko bestak

Duela 60 bat urte bi herrietako bizilagunak Xokonean biltzen ziren firletan aritzera

Margari eta Koro

Aspaldiko partez, aurtan Alkerdiko bestak antolatu dira. Gaur egungo bizilagun gehienek ez dugu ezagutu, baina duela 60 bat urte Xokonea etxean firle-jokoko tokia bazegoen eta igandetan Urdazubi eta Zugarramurdi-koak harat biltzen ziren firletan aritzera. Horren inguruan ere egiten omen ziren halako besta edo bedenik dantzaldi batzuk, baina gaur egun egiten den ospakizun bakarra abenduaren 26ean da: Alkerdiko kaperan San Esteban patroinari meza bat eskeiniz. Aurtan ospakizun hori borobildu nahian, ondoko larunbaterako, abenduaren 29a, «Burkaitzea» jate-txean bazkaria antolatu da, Joxe Angel mu-



Martin Joxe eta Irune zikiro erretzeko makilekin egindako arku azpitik pasatzen. Azaroaren 24ean Zugarramurdiko plazan musika eta suziriak izan ziren, aspaldi huntan izan ez den akontezimientoa ospatzeko: ezkontza bat.

sikariarekin eta guzi. Aurtengoz hori baizik ez bada egin, antolatzaileek parte hartzerari animatzen dute eta emaitzak ikusi ondotik, hel-

du den urterako zerbait gehiago prestatzeko intentzioa daukatela adierazi dute (firla txapelketa bat, behar bada?).

Ardantzeta dantza taldea
Udazkeneko Biraren barnean
Nafarroako Gobernuak

herri ttikietarako urtero antolatzen duen Udazkeneko Bira ekitaldien artean, abenduaren 8an Zugarramurdiko pilotalekuan Noaingo Ardantzeta dantza taldea arituzten. Besta eguna izanik, eta herrian jende aunitz ibilkienez, frontoia erdia baino gehiago bete zen. Jendeak gustura ikusi zuen emanaldia, dantzen artean zenbaitez arras bereziak zirelako (kadira dantza adibidez). Finitzeko, ikusleak ere arituz ziren dantzan, dantzariarekin batera.

ARMUA
Jatetxea

Zugarramurdiko karretera 3. Km
© 948 599 131 - URDAZUBI

EZKONTZAK

Jean-Luc Banos eta **Corine Denoix de Saint-Marc**, Senperekoak, urriaren 6an.
Jean-Marie Halsouet eta **Pantxika Sanchez**, Senperekoak, urriaren 9an.
Norbert Tarissan eta **Virginie Gonçalves**, Senperekoak, azaroaren 20an.
Gilles Guth eta **Sandra Hayet**, Senperekoak, azaroaren 24an.
Martin Joxe Agirre Pegneguy eta **Iruñe Soto Cotorro**, Zugarramurdi eta Portugaletekoa, azaroaren 24ean.
Amaia Otxandorena Mindegia eta **Bautista Santesteban Loiarde**, Zubietakoak, abenduaren 1ean.
Alejandro Arretxea Maritorea eta **Ana Esther Ziauriz Uhart**, Berroeta eta Elizondokoa, azaroaren 17an.
Jose Francisco Ugalde Telletxea eta **Purificacion Garcia Maia**, Bera eta Lesakakoa, azaroaren 24an.
Jose Manuel Iriarte Zubieta eta **M^a Juncal Gomez Garcia**, Berakoak, abenduaren 1ean.
Laurent Bessouat eta **Laurence Gerard**, Ainhoa eta Sarakoa, azaroaren 24ean.

JAIOTZAK

Ines Lamothe, Senperekoa, urriaren 15ean.
Clara Louise Mross, Senperekoa, urriaren 22an.
Tom Hervé Glise, Senperekoa, urriaren 29an.
Mattis Nicolas Doucinet, Senperekoa, azaroaren 14an.
Hannah Juliette Chepy, Senperekoa, azaroaren 19an.
Diego Garcia, Senperekoa, azaroaren 18an.
Anthony Verhoye, Senperekoa, azaroaren 26an.
Eneko Feo Miguela, Leitzakoa, abenduaren 3an.
Ane Oskoz Ormart, Gartzaingoa, azaroaren 24an.
Goiatz Karrikaburu Mitxeo, Arraiozkkoa, abenduaren 3an.
Malen Altzuart Aranburu, Arizkungoa, azaroaren 29an.
Jon Zabala Iparragirre, Doneztebekoa, azaroaren 20an.
Mikel Irigoien Irazoki, Berakoa, azaroaren 20an.
Sandra Etxegarai Aldabe, Berakoa, abenduaren 6an.
Jon Oartzabal Telletxea, Oizkoa, azaroaren 22koa.
Ioana Violet, Sarakoa, azaroaren 21ean.
Julen Etxebeste, Sarakoa, abenduaren 1ean.
Zoran Iturriza, Sarakoa, abenduaren 5ean.
Maitane Agerre Iparragirre, Igantzikoa, azaroaren 28an.

HERIOTZAK

Joseba Zestau Juantorena, Ezkurra-koa, azaroaren 28an, 22 urte.
Laurent Zamora, Senperekoa, urriaren 12an.
René Martet, Senperekoa, urriaren 26an.
Jean Moulinet, Senperekoa, azaroaren 4an.
Henry de Lasa Sharpin, Senperekoa, azaroaren 19an.
Coleta Eiheragarai Altzualde, Urdazubikoa, urriaren 28an.
Eugenio Sansiñena Elizagoien, Zugarramurdikoa, azaroaren 23an, 84 urte.
Soledad Suhas Migeltorena, Zugarramurdikoa, azaroaren 28an, 75 urte.
Fidencio Ugalde Sola, Elizondon, azaroaren 23an, 83 urte.
Jon Miren Frantzesena Bidegarai, Elizondokoa, azaroaren 25ean, 52 urte.
Pedro Elizetxe Dufurrena, Erratzukoa, abenduaren 3an, 77 urte.
Jesusa Ubiria Altzuguren, Berakoa, azaroaren 23an, 84 urte.
Micaela Arribillaga Errandonea, Berakoa, abenduaren 7an, 92 urte.
Helena Leza Ezeiza, Etxalarkoa, abenduaren 7an, 40 urte.
Sandalio Amigorena Irisarri, Donamariakoa, abenduaren 7an, 82 urte.
Claude Rouyer, Sarakoa, azaroaren 24ean, 69 urte.
Mari Goietxe, Sarakoa, azaroaren 26an, 89 urte.
Etienne Etxeberri, Sarakoa, azaroaren 26an, 77 urte.
Oliva Etxeberria Ameztoi, Igantzikoa, azaroaren 30ean, 86 urte.

ESKELA GEHIAGO 33. ORRIALDEAN



**Joseba GESTAU
JUANTORENA**

Berriki hila

*Umorez eta alaitsu
egoten ginen elkarrekin,
eta oroitzapen ahaztezin horiek
beti geldituko dira gurekin.*

EZKURRAKO GAZTEAK
Ezkurran, 2001eko azaroaren 28an.



**Lucio OTXANDORENA
ITURRALDE**

*Udazkeneko usoen antzera joan zara eta
gogorra da onartzea gehiago ez zaitugula ikusiko
baina bizitzaren garen artean ez zaitugu ahaztuko.
Orain gaude ezin kontsolaturik bihotzen dugun pena
Jaingoikoaren altzoan har ezazu atsedena.*

Zure familia,
Arraiozen 2001eko azaroaren 13an.

**Mila esker une latz hauetan
gurekin egon zareten guziei.**



**M^a Jesus
BALEZTENA MITXEO**

2001-X-20

*Sobera abudo joan bazinen ere,
beti gogoan eta bihotzean
izanen zaitugu.*

Maitasunez, Imanol eta Andrea.
Lesakan, 2001eko azaroaren 20an.

AIZKORA DESAFIOA

Aspaldiko partez, herritarren arteko aizkora desafioa ikusi zen Leitzan ekainaren 30ean. Santi Olanok irabazi egin zion Diego Riañori. Azken honek errebantxa hartu zuen Nafarroako 3. mailako txapelketan, txapeldun izan baitzen eta Olanok azpitxapeldun.



Diego Riaño eta Santi Olanok

ANTXITONEA TRINKETEA

Otsailaren 17an zabaldu zen berriro ehun urtetik goiti duen Elizondoko Trinketea.

ARIZTEGI, Maika

Urte ona izan da Iturengo kirolariarentzat. Urtarrilaren 28an, Nafarroako kros txapelketa irabazi zuen Altsasun eta irailaren 23an Euskal Herriko koxkor biltze txapelketa aisa irabazi zuen Uhartan.

ARRAIOZ

Bigarren zapela lortu du Baztan-Errekako laxoa txapelketan. Finalean, 9-7 irabazi zion Doneztebe B taldeari, abuztuaren 5ean Elizondon jokatu-tako finalean.



Arraiozko laxoa taldea

AZKAINE saskibaloia taldea

Apirilaren 29an, nesken taldeak US Bearn taldea garaitu zuen «honneur departamental» txapelketan. Aurten «Promotion Excellence» mailan ari dira.

BALEZTENA, Josu

ASPE enpresarekin bi urteko kontratua sinatu du Eratsungo aurrelariak eta pixkanaka le-



Joseba Beola auto gidaria

kua egiten ari da onenen artean.

BARRIOLA, Abel

Leitzako pilotariak denboraldi ezin hobea egin du. Eskuz banakako txapelketan behe-behetik hasita final erdietara ailegatu zen eta lanak eman zizkion txapeldun izanen zen Belokiri. Lau terdiko txapelketan ere finalerdiak jokatu ditu. Regi II.aren agurreko partiduetan bera izan zen gehienetan atzelaria.

BENGOETXEA, Aitor

Maeskurekin debuta egin zuen profesionaletan 21 urteko atzelari leitzarrak. Bengoetxea V. atzelaria da eta eskuz banakako txapeldun bi aldiz izandako Juan Mari, Bengoetxea III. da bere aita.



Aitor Bengoetxea

BENGOETXEA, Oinatz

17 urte bertzerik ez ditu Aitorren lehengusuak, Oinatzek. Afizionatutan Europako klub arteko txapelketan azpitxapeldun izan da eskuz banaka Alsasua taldearekin eta dagoeneko Asegarceri hitz emana

da profesionaletara salto egiteko. 2002. urteko uda baino lehen debutatuko du.

BEOLA, Joseba

Lesakako Rally Sprint Auto Igoeran nagusitu ondotik, Nafarroako txapelketako sailkapenaren buruan jarri zen. Carlos Sainz-en zirkuituan ere proba egin du aurten Berako gidariak.

BETI GAZTE

2000ko Nafarroako sokatira txapelketan txapel guzien jabe egin ondotik, Euskal Herriko 2001eko txapelketan lautik hiru irabazi zituen Lesakako taldeak. Aurten Nafarroako 680 eta 640 kiloko txapelak jantziak ditu dagoeneko eta ez dirudi guztiak lortzeko arazo handiegirik izanen duenik. Elkar-tearen 60. urteurrenean, bertzalde, «60 urte eta... Beti Gazte» liburua argitaratu du Aitor Arotzena kazetariak.

BRU, Jon

Nafarroako txirrindulari afizionatu onenari emandako saria jasatu du bigarren urtez segidan, Telco,m Ordoki taldeko berrarrak. Denboraldi honetan profesionaletara salto egingen du Portugaleko La Pecol taldearekin.

ERREKA

25. urteurrena ospatu du aurten Doneztebeko elkarteak, hainbat kirol ekitaldirekin: eskubaloia eta areto-futbol txapelketa bikainak, Nafarroako judo txapelketa, lehen 8.000 metroko mendia igo zuten mendizale nafarrei –tartearen, Lekarozko Gerardo Plaza zena-omenaldia... Zorionak!



Joxe Irigoien, Pedro Bañares eta Patxi Ganboa, Erreka elkarteko zuzendaritza batzordeko kideak.



2000 kirol izen



Gure Txokoako futbol taldeko mutilek partidu ga irabaztea eta mailaz igotzea lortu zuen.

ETXEGARAI, Fernando

Nafarroakoaren ondotik, Euskal Herriko koxkor biltze txapelketa irabazi zuen abuztuaren 5ean bere herrian jokatu-tako finalean. Marka berria ere ezarri zuen.

EZKURRA, Koteto

Bingo-Londres txapelketa irabazi du seigarren aldiz erremontelari doneztebarrak, irailaren 8ko finalean Lizaso herritarri 35-14 irabazi ondotik.

FAGOAGA, Jone

Plater tiraketako Skeet Olinpikoan Espainiako txapelketa Erregearen Kopa. Nazioarteko probetan ere parte hartu du Espainiako selekzioarekin tiralari lesakarrak.

GURE TXOKOA

Gipuzkoako Preferente mailara igo da historian lehen aldiz mutilen talde nagusia, Erregeonaleko lehen mailako txapeldun izan ondotik. Liga bikaina egin zuen eta bi partida

01eko rol ndegia



basilloa egin zieten neskek. Bi taldeek ligan 2000-2001 denboraldian.

bakarrik galdu zituen. Emakumeen Ligan ere bertze urte batez irabazle suertatu da Beraiko taldea eta Liga Nazionalean ari dira denboraldi honetan.

IRIGOIEN, Mololo
Pilotari lesakarrak afizionatu mailako eskuz banakako txapelketa irabazi zuen apirilaren 7an Labriten. Klub arteko txapelketa ere eman dio Paz de Ziganda taldeari, urriaren 28an jokatuako finalean 22-20 irabazi baitzion Alsasua taldeko Oinatz Bengoetxea leitzarrari.



Mololo Irigoien

MARITXALAR, Rafa

Nafarroako kros txapelketa eta bertze hainbat lasterketa irabazi ditu korrikalari lesakarrak.

MIHURA, Iñaki

Aurten ere Nafarroako eta Euskal Herriko gazte mailako kros txapelketak irabazi zituen urte hasieran Hiru Herri taldeko korrikalari arraioztarrak.

MINDEGIA, Javier

Euskal Herriko gazte mailako txapelketa aisa irabazi zuen Beintza-Labaiengo 17 urteko aizkolariak, Doneztebeko ferrian egindako saioan. Osabari erreleboa hartzeko modu polita.

MINDEGIA, Mikel

Aurten ez du txapelketa ofizialean parte hartu aizkolari haundiak, baina ongi merezitako omenaldia jaso zuen Doneztebeko feria egunean. Han erran zuenez, ez du erabat baztertu heldu den urtean txapelketetara bueltatzea.



Xabier Mitxelena

MITXELENA, Xabier

Aspe enpresarekin debuta egin zuen urriaren 14an atzelari lesakarrak. Hiru hilabeterako proba eginen diote, Panpi Ladutxek aholkatuta.



Goñi III eta Olaizola txapeldun

OLAIZOLA, Asier

Goizuetarrak eta Goñi IIIk, eskuz binakako Espainiako pilotatxapelketa irabazi zuten mar-

txoaren 11n. Donostiako Atano III pilotalekuan jokatuako finalean 22-13 irabazi zieten Alustiza eta Belokiri.



Iruritako paxaka hirukotea

PAXAKA

Laxoa elkarreak bigarren aldiz antolatutako Paxaka txapelketa Iruritako Andres Elizaintzin eta Igor eta Oskar Urrutia anaiek irabazi zuten. Iazko txapeldunei, Arraztoa, Artazkoz eta Etxeberriari 9-7 irabazi zieten.



Gorka Retegi

RETEGI, Gorka

Garfe enpresarekin hiru urterako kontratua sinatu ondotik, martxoaren 24an egin zuen debuta profesionalean Sunbillan Retegi VII atzelari beratarrek.

RETEGI, Julian

Zazpigarrena hasi eta Retegi



Julian Retegi, adirik ez.

bigarrena erretiratu. XX. mendeko txapeldunik handienak Hegoaldeko herrialde bakoitzeko eta Errioxako frontoi bannan jokatzu erran zion adio pilota profesionalari. Lehen mailako eskuz banakako 11 txapel, binakako 5 eta lau terdiko 4 txapel irabazi ondotik, Adarragan jokatu zuen azken partida irailaren 20an.

SHISHA PANGMA

Ezin izan zuen 8.027 metroko gailurra zanpatu Martiko-Shisha Pangma Bortziritako mendia espedizioak. Luis Mari eta Patxi Pikabea, Sabino Korta eta Jabier Zubieta beratarrekin batera, Zestoako Andoni Zulaikak osatu zuten espedizioa. Penatuak baina onik itzuli ziren: «Mendia beti hor egonen da» zioten.

TXARUTA Pilota Taldea

Taldeka irabazi daiteken guzira irabazi dute aurten Baztan eta Malerrekako pilotariak. Belate elkartearen Udaberriko Saria irabazi ondotik, iaz bezalaxe Nafarroa eta Euskal Herriko Herriarteko txapelketak irabazi zituzten, Oberena eta Eloorrioren kontra. Banaka eta binaka ere hainbat txapel lortu dituzte Txarutakoek.



Txaruta Nafarroako Herriarteko txapeldun.

AGENDA egunez egun

KONTZERTUAK

GOIZUETA

Abenduaren 23an gaueko 23:30etatik aurrera «Beri Txarrak» rock taldea Gaztetxean. Aralar Musika Eskolaren 25. urteurrenaren ospakizunen barnean.

IGANTZI

Abenduaren 22an ilunabarreko mezaren ondotik Abesbatzaren kontzertua elizan.

SARA

Abenduaren 23an arratsaldeko 17:30etan Osasuna Elkarateak Arrangoitzeko Biez Bat korallarekin kantaldia antolatatu du. Sartzea 20 Libera.

ERAKUSKETAK

BERA

Azaroaren 30etik abenduaren 22ra Hector Urraren margoak ikusgai Kultur Etxean, 18:00etatik 20:00etara.

ARIZKUN

Urtarrilaren 6a arte Fernan Gorostidi margolariaren lanak ikusgai Xokoan.

ZINEMA

LEITZA

Abenduaren 21ean 22:30etan «Los Otros» filmea.

Abenduaren 22an 19:30etan «Los Otros» filmea.

BESTAK

URDAZUBI-ZUGARRAMURDI

Abenduaren 26an Alkerdikoko kaperan San Esteban patroinari meza.

Abenduaren 29an bazkaria Burkaitzean, Joxe Angel musikariarekin. Alkerdikoko besten barreneko ekitaldiak.

TELEBISTAKO TXOKOA



EGUBERRIAK TTIPI-TTAPA TELEBISTAN

Saio bereziek osatuko dute Eguberrietako programazioa

Aldizkarira bezala gure telebistara ere ailegatu da eguberrietako oihartzuna eta ez nolana gainera. Martxan hasiz geroztik programa berexiz josi izan dugu data hauetako programazioa eta aurten ez da desberdina izanen.

Aitzineko egunotan ikusi izanen duzuen moduan dagoeneko HERRIZ HERRI saioak eguberriehi lehenbiziko ongietorria egin die. Eta herritarrek eguberriak nola ikusten eta nola prestatzen dituzten hobekixeago ezagutu ondotik lehen aipatutako saio bereziak ailegatuko dira. Lehenbizikoa, ortziral honetan bertan arratseko 9ak aldean, Arkupeak elkartearen urte osoko ekitaldien bildumarekin. Hilaren 26an, nola ez, Eguberri

bezperak, Olentzerok beraz, ekarri zuena eskeiniko dizuegu.

Eta behin urteko azken astean sartuak, 27an ortzegunarekin, 2001 urteak eman dituen gertakari garrantzitsuenei begira jarriko gara, irudi adierazgarrienak biluz.

Abenduaren 28an, ortziralarekin, urteari aio errateteko ordua ailegatuko zaigu eta horretarako bertze saio berezia prestatuko dugu, azken urteotan egin dugun bezala, bitxikeriz betea.

Urtea bukatzeko punttuan dago, beraz momentu politenak berri bizi izateko prest bazaude, etzazu dudarik egin, TTIPI-TTAPA telebistan aurkituko duzu nahi duzuna.

DISKAK



«Kantuz sortu naiz eta...»

Erramun Martikorena

ELKARLANEAN

Erramun Martikorena Baigorriarrak bere azken lana kaleratu du «Kantuz sortu naiz eta...» izenburuarekin. Ipar Euskal Herriko kantu herrikoia-
ren irudirik esanguratsuena dugu Erramun, Euskal Herrian zein mundu osoarentzat ere, Iparaldeko kantu liriko herrikoia-
ren erreferentziarik garrantzitsuena bilakatu zen aspaldi.

'Kantuz sortu naiz eta...' bere azken diskoan Xalbador, Etxahun, Mendiague, Otsobi, Haroztegui, Labeguerie, Lete, Sarasua, Badiola, Alkat, Larre eta bertze euskaldun ezagunen hitzak bildu ditu.

Azken disko hau, interpreteak kantuan eman dituen hogeita hamar urteen islada da. «Bidai» hau, hamabost kantu "xamangarritan" banatu du Erramunek. Erlarlanean disketxea izan da produkzio lanetaz arduratu dena.

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (Azaroaren 23tik 30erako prezioak)



ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 6.700 pta.

Zerri gizena
(95-100): 172 pta/k.

Zerramak:
108/110 pta./kiloa, bizirik.



BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: Pta/kg. Kanal

Extra 585
1.koa 565
2.koa 545

Urruxak: Pta/kg. Kanal
Extra 595
1.koa 575
2.koa 555

Oharra: Prezioak 200-230 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze ttikiak

(15 egun ingurukoak):
Nabarrak: urruxak 36.000 eta idixkoak 29.000 Pta.

Mestizoak: urruxak 36.000 eta idixkoak 34.000 Pta.

Zaldikoak: Pta/k

Sortuberriak: 510/520
Zaldi-behorrak: 330/340

Bildotsak: Pta/k

6-8 kilokoak: 1.225-1.275
8-10 kilokoak: 1.100-1.150

JAKIN BEHARREKOAK



Eneagrama, norberak bere burua ezagutzeko bide bat

Norberak bere burua ezagutzeko, eta bide berberaz besteak ezagutzeko, hainbat tresna dago gaur egun; eta haietariko batek Eneagrama izena du. Eneagrama erabiltzeak ez du esan nahi besteak ezin erabil daitezkeenik, guztiak osagarriak baitira. Bizitzan geure burua ezagutzeko tresnak daude, baina, azken finean, bizitza bera da eskolarik onena.

Eneagrama sinboloak berak, bi mila urte baino gehiago ditu. Garai horretan ia dena sinbolo hau erabiliz deskribatzen zuten, hala nola orduko ezaguera guztia: Mate-

Eneagramaren bitartez pertsonaren alde baikorrak eta ezkorrak bereizi daitezke.

matika, Astronomia eta abar.

Eneagrama nortasunen mapa da. "Enea" hitz grekeratik dator eta bederatzia esan nahi du. "Grama", berriz, puntuak dira. Beraz, bederatzia puntuko mapa da Eneagrama.

Puntu horien bitartez pertsonaren alde baikorrak eta ezkorrak, edota indartsuak eta ahulak, bereizten ahal ditugu.


Erraten ohi den bezala: "Beti harri berarekin topo egiten dugu". Harri horiek dira geure oztopo pertsonalak.

Pertsonen pertsonalitateak oro har nolakoak diren azaltzeko oso mapa argigarri, erraz eta erabilgarroa da.

Euskal Herrian hainbat gaude Eneagrama zabaltzen dugunok, antolatzen ditugun ikastaroak era simple eta erabilgarri batez antolaturik daude: gure bizitzaren "betiko oztopoak" argiago ikusteko eta besteengana hurbiltzeko bidea errazago egiteko.

ISABEL MILLET HEYRIES

LIBURUAK



Gazte idealistak

Gorka Torre

Gatuzain

Eleberri honek, 70. hamakadan sortutako Arixo deitutako donibandar baten biziaren gorabeherak kontatzen ditu. Sorzteretik heldutasuneraino. Idazleak Arixoren ibilbidea segitzen du poltsiko liburuan: haurtzaroan egiten dituen bihurrikariak, nerabezaroan dituen abenturak, unibertsitateko grebak, gartzaroan izaten diren aurkikuntzak eta abar. Kondaketan idazleak Arixoren harremanak, maitasun istorioak, kontzientzia abertzalearen garapena,

formakuntza politikoa, eztabaida filosofikoak, militantzia, idealismoa eta berteak azaltzen ditu.

Gorka Torre Baionan sortutako idazlea da. Egun Baionako ikastolan ari da lanean natur zientziak irakasten. «Gazte idealistak» bere lehen idatzia da eta 215 orrialde ditu eta saketako liburu hau Gatuzain argitaletxeak argitaratu du. Poltxiko sailaren 5. liburuxka da Gorka Torreren «Gazte Idealistak» eleberria.

AGENDA egunez egun

ANTZERKIA

LESACA

Abenduaren 23an

arratsaldeko 19:00etan Lesakako Mairu antzerki taldearen «Zugarramurdiko Sorginak» lan berriaren aurkezpena udal pilotalekuan.

LEITZA

Abenduaren 23an

arratsaldeko 20:00etan Markeliñe antzerki taldearen eskutik «La garboSA» antzezlanaren zinemaren.

MENDI ATERALDIAK

LEITZA

Abenduaren 30ean Mendibil

mendi taldeak Bisaurinera irteera antolatu du. Izen ematea ohiko lekuetan abenduaren 27rako.

BERTSO SAIOAK

BERA

Abenduaren 29an arratseko

8etatik aitzinera Kultur Etxean Andoni Egaña, Sustrai Colina, Amaia Agirre eta Iñigo Olaetxea bertsolariak Jon Abril gai-jartzailearen erranetara. Antolatzaile: Berako Euskara Batzordea.

GOIZUETA

Abenduaren 22an

arratsaldeko 16:30etatik aurrera eskolako jangelan Xalto Sariaren seigarren edizioako finala, Nafarroa eta Iparraldeko zortzi bertsolari gazterekin.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Abenduaren 17tik 23ra

Lesaka, Doneztebe, Irurita eta Goizueta.

Abenduaren 24tik 30era

Igantzi, Sunbilla, Elizondo (Lezaun), Urdazubi eta Goizueta.

00-34 **948 63 11 88**

Sail honetan iragarkia jartzeko 6,30 € ordaindu behar da. Ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 3,60 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapa igorri faxez edo postaz.

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIJETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. Ttipi-ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/lgeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurrak

ETXEBIZITZAK

101 Saldu

BERA. Pisu salgai Ageran. Eguzkitsua, igogailu, sotoa eta kalefakzioarekin. Sukalde ekipatua. Bajerarekin edo gabe. ☎ 652 705 556 • 948 630 885

BERA. Pisu salgai Legia, 53 - 3. ☎ 696 753 366.

BERA. Pisu salgai San Estebanen, trastero eta garajearekin. ☎ 626 097 128

BERA. Pisu salgai San Estebanen. ☎ 948 630 196

BERA. Pisu salgai Kanttonberri 1ean. ☎ 948631049

• (Getatik aitzin) 948 630 532

BERA. Pisu salgai Eztegarra Pasealekuan, hirugarren pisua, eguzkitsua. ☎ 948 630 251 • 679 526 401

IGANTZI. Pisu, garagea eta sotoa salgai. ☎ 948 637 845

LEITZA. Pisu salgai Amazabal. 90m². ☎ 948510535

ETXEBIZITZAK

102 Erosi

Etxea edo baserria erosi edo errentan hartuko nuke. Bajera badu hobe. Zaharra bada berdin. ☎ 653012576

ETXEBIZITZAK

103 Errentan eman

CAUTERETS. Eski estazioan 6 lagunendako pisua errentan ematen da. ☎ 00 33 559 419 711 (arratsaldeko 7etatik aitzin)

GARAJEAK/LOKALAK

107 Saldu

DONEZTEBE. Aparanen 75 m²ko nabe pabilloia salgai, 55m²ko bigarren plantarekin. ☎ 948 450 906

GARAJEAK/LOKALAK

109 Errentan eman

BERA. Zalainen 200m²ko lokala errentan eman nahi da. Bariantearen ondoan. ☎ 948630332 (arratsetan 6etatik aitzin).

BERA. 155m²ko pabelloia errentan eman nahi da. Bidasoa 76. ☎ 948 630 421

LEGASA. 450m²ko nabea alokatzen da. ☎ 629 348 491

LURRAK/ORUBEAK



TILESIA
KORTAZIEN ERREKONSTRUKTIOA
BIZIKAZIEN ERREKONSTRUKTIOA

Ikasturte irekiak, udakak, ikasturte itxurak, etab...
Haferrak: 948 637 397
Gipuzkoa: 943 211 297
Sakelekoak: 636 728 119

ADOS

- Eskaera handia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, bajerak etab. erosi nahi dira.

☎ 948 451 841
607 978 656

ADOS

DONEZTEBE
Pisu berriak salgai.
Bigarren eskuko bi etxe.
BERA
Pisu batzuk salgai,
14 milioi Pta.tik hasita.
Bajera 175 m²tik gorakoak
Altzate karrikan

☎ 607 978 656

112 Saldu

KORELLA. 1.420m²ko lur eremua etxolarekin, eta karabana salgai. ☎ 948630582

LESACA. Inguru industrialean dagoen 100m²ko bajera salgai. Bulegoa jartzeko egokia. Sartzeko moduan. Preszio interesgarria. ☎ 948 634 114 • 600 902 579

ZERBITZUAK

208 Bertzelakoak

Animali-granjak edo behitegiak legalizatzen dira. (Licencia de actividades clasificadas). ☎ 699 364 479

LANA

301 Eskariak

Atzerriko bikote batek **etxe batean interno lan eginen luke.** (Paperak badituzte) ☎ 678 890 970 • 620 254 332
2 emakumek lana bilatzen

BAZTAN MOTOR

☎ 948 452 119 • IRURITA

Bigarren eskuko kotxe garantizatuak:

R4, Fiesta XR2 inyeccion,
Suzuki Vitara SJ410,
Xantia 2.1TD, Fiesta 1.4 3 ate,

dute, goizeko 9etatik 4:30etara lan egin dezakete. ☎ 620 254 332

Adinekoak zaintzeko edo edozein lanerako, neska eskaintzen da. ☎ 677742749

Asteburuetan lan egiteko **jan-gelako zerbitzaria eskaintzen da** ☎ 948 625 422

LANA

302 Eskaintzak

IBARDIN. Ostatu batean egunero lan egiteko neska behar da. Frantsesa jakitea beharrezkoa. ☎ 948 630 734

MOTORRA



manelsa

elektrizitate industrial

**Instalazio eta muntaia
elektrikoak
Mantenimendua
Automatizazioak
Iluminazioa**

Amaiur 2, behea
Sakelekoa: 686 466 865
31700 ELIZONDO

Artekale 22, behea
Tel. eta faxa: 948 301 025
Sakelekoa: 686 466 866
31195 BERRIOZAR (Nafarroa)

MENDAUR MOTOR
 © 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:

Citröen ZX,
 Defender, Feroza I600,
 C15 Diesela, Terrano II
 SUZUKIAK ETA VITARAK AUKERAN

501 Salerosketak

Peugeot 605 SRI salgai.
 750.000 pezeta. Hagitz egoera onean. ☎ 948 630 280

Chrisler monobolumena TD, 116cv eta 7 eserlekusalgai. Hagitz egoera onean. NA-AS. ☎ 948 637 433

Ford Fiesta XR2I salgai. 350.000 pezeta. NA-AD. ☎ 948 637 526

Citröen Saxo VTS 16V salgai. Egoera onean. Extra aunitz. NA-AP. ☎ 689 042 282

Kamioiarendako zereal plataforma baskulantea salgai. 11,2 metro, 3 ardatz. Burnizko txasia, aluminiozko kaja. ☎ 649 801 997

ANIMALIAK

601 Emateko

Xakurkume politak oparitzeko. Ama collie arrazakoa da eta aita etxe xakurra da. ☎ 948 453 312

ANIMALIAK

602 Saldu/Erosi

39 ardi bere deretxoekin salgai. ☎ 948 627 569

20 ardi ernari eta bertze 10 ardi deretxoekin salgai. ☎ 948 453 312634 180

6 hilabeteko astokumea salgai Arantzan ☎ 948634093

DENETARIK

701 Galdu/Aurkituak

Maleta beltz bat galdu dute Arantzan edo Beran Agera auzoan. Telefonicaren logoa du eta lanabesetz bete

BORTZIRIETAKO HIRI HONDAKINEN MANKOMUNITATEA

Sukaldean erabilitako olioien bilketa egunak

2002ko urtarrilaren 3an

Lesakan9etatik 12etara
 Igantzi12,30etatik 13etara
 Arantza13,30etatik 14etara

Joseba GESTAU JUANTORENA

Berriki hila

*Zu joan zara,
 baina zure oroimena
 gurekin geldituko da.*

DONEZTEBEKO LAGUNAK
Ezkurran, 2001eko azaroaren 28an.



Joseba GESTAU JUANTORENA

Berriki hila

Gero arte.

BEATRIZ
Ezkurran, 2001eko azaroaren 28an.

dago. ☎ 948 631 212

DENETARIK

702 Salerosketak

Egurrezko sukalde salgai. Hagitz gutti ibilia. ☎ 948 627 557

Burdinezko esne garrafa zaharrak erosten ditut. 3000 pezeta. ☎ 626 532 452

Haritz Amerikar egur idorra salgai. 40-50cm tan moztua 15-20 Tn. ☎ 616 055 371 (eguerditan edo gauetz)

Babarrunak (ilar gorriak) salgai. ☎ 948 610 704

DENETARIK

703 Bertzelakoak

Berogailuak hartzen ditugu

BERAko UDALA
 AYUNTAMIENTO DE BERA

OIHAN ENKANTEA

BERAko Udalak plegu itxiaren bidezko enkante irekian salgai jarriko du oihan probetxamendu hau:

1. Pinu insignis, azken mozketara, oin kopurua: 5.231, 9.032 m³ egurra; hasierako prezioa: 81.288.000 pezeta / 488.550,72 euro.
 Parajea: Lizanabar.

Proposamenak aurkeztea:
 Proposamenak, ondoren doan eredu ofizialaren arabera, baldintza pleguaren 2. oinarrian eskatzen diren agiriaren batera, Udaleko Idazkaritzan aurkeztuko dira, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunetik hasita hamabostgarren laneguneko eguerdiko ordu batura baino lehen. Azken egun hau larunbatarekin suertatzen bada, astelehenera arte luzatuko da aipatutako epea.

Proposamen ekonomikoak jendaurrean irekitzea: Epea bukatu eta hurrengo egunean, eguerdiko 14:30etan. Egundau larunbatarekin suertatzen bada, hurrengo astelehenera irekiko dira.

• Baldintza teknikoak eta klausula administratiboaren plegua Udala Idazkaritzan ikusgai egonzen dira.

Bera, 2001eko abenduaren 10a

ALKATEA,
 J.J. Goya Echeverria

PROPOSAMEN EREDUA

.....J/Ak, helbidea....., telefonoa....., N.A.N....., Enpresa Kalifikazio Agiria..... (Aldizkariaren data)..... garen Nafarroako Aldizkari Ofizialean salgai dagoela iragaritzen den oihan lotea esleitu izan dakion eskatzen du, eta horretarako balorazio teknikoak eta gainerako baldintzak onartu eta (zenbakiz eta letraz)..... pezeta ordaintzea eskaintzen du.

BERAko UDALA
 AYUNTAMIENTO DE BERA

ZIA AUZOARI URA HORNITZEKO OBRAK

- **Kontratuaren xedea:** Zia Auzoari ura hornitzeko obrak.
- **Esleipen modua:** Prozedura irekia, lehiaketaren bidez.
- **Kontrata aurrekontua:** 34.618.338 pza. / 208.060,40 euro (B.E.Z. barne)
- **Kalifikazioa:** E taldea, 1. azpitaldea, C maila.
- **Proposamenak aurkeztea:** Iragarri hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta ondoko 27. egun naturala arte. Orduak: 9:00etatik 13:00etara. Azken eguna larunbata suertatzen bada, astelehenaraino luzatuko da.
- **Proposamen ekonomikoak jendaurrean irekitzea:** Proposamenak aurkezteko epea bukatu eta ondoko 5. Egundau naturalean. Egundau larunbata suertatzen bada, ondoko astelehenera irekiko dira. Ordua: 14:30.
- **Proiektua, baldintza tekniko eta klausula administratibo plegua** eta gainerako baldintzak interesatuen eskura leku hauetan izanen dira:
 - Udala bulegoetan
 - Rubio paperdenda: Fco. Bergamin, 10 (Iruñea)
 - Ingesoa: Iturlandeta Karrika (Bera)

Bera, 2001.12.11

ALKATEA, J.J. Goya Echeverria

gu opari. ☎ 948 630 086

HARREMANAK

802 Bertzelakoak

Gazte sentitzen den Gipuzkoako 70 urteko gizon alar-

gunak, **pozik hartuko luke 55-65 urteko emakume alarguna eta euskalduna,** elkarri konpainia egiteko. ☎ 687 851 713 (Bingen)

Argazkiak berreskuratzeko, bidali sobrea zure helbidearekin.



JAIONE RODRIGUEZ EXEPARE lesakarrak 6 urte bete ditu abenduaren 4an. Zorionak ama eta familiaren partetik.



IRAKI IRURETAGOIENA ARREGI doneztebarrak 11 urte bete zituen azaroaren 9an. Zorionak Oteizako familiaren partetik. Ongi ibili.



FRANCISCO ARREGI ELORRI zori-onak abenduaren 3an. Muxu bat Oteizako familiaren partetik. Ongi segi eta prestatu kafe on bat.



JOSE DIEGO SARRATEA ARREGI doneztebarrak 39 urte bete ditu abenduaren 4an. Zorionak Oteizako familiaren partetik.



ANA SARRATEA ARREGI doneztebarrak 7 urte bete zituen azaroaren 20an. Zorionak Oteizako familiaren partetik. Prestatu merendola!



GORKA SARRATEA ARREGI doneztebarrak 10 urte bete ditu abenduaren 4an. Zorionak Oteizako familiaren partetik. Prestatu tarta.



AMAIA ETA NEREA ARRAZTOA iruritarak azaroaren 18an eta abenduaren 23an 3 eta 2 urte bete dituzte. Zorionak Irurritako izaba-osaba eta lehengusinen partetik.



Zorionak Donamariako **IRIGORI** abenduaren 10ean 9 urte bete dituelako. Zorionak bere familiaren partetik. Aupa korrikalari!



AITOR ALTZUGARAI ZUBIRI lesakarrak 5 urte beteko ditu abenduaren 2an. Zorionak lker, ama eta attaren partetik.



FAUSTINO ETXABE zugarurdiarrak 38 urte bete ditu abenduaren 3an. Zorionak Jose Mari eta Jaione ioben partetik.



MAYTE SANZ beratarrak 48 urte bete ditu abenduaren 4an. Zorionak Jose Mari eta Jaioneren partetik.



JOSE MARI ETXABE beratarrak 10 urte bete ditu abenduaren 7an. Zorionak eta musu handi bat alta, ama, Jose eta Jaioneren partetik.



JON IPARRAGIRRE ETA MARIA GARCIA beratarrak abenduaren 28an, 2 eta 20 urte beteko dituzte. Aunitz urtez familiaren partetik.



JOSEBA MARIEZURRENA APEZTEGIA beratarrak abenduaren 11n 3 urte beteko ditu. Zorionak aita, ama, Eneitz eta familiaren partetik.



EIDER MUJIKA leitzarrak abenduaren 30ean urteak beteko ditu. Zorionak guraso, ahizpa, amona eta Rosaren partetik.



ANE ARBURUA SAGASTIBELZA beratarrak abenduaren 12an 3 urte bete ditu. Aunitz urtez eta muxu handi bat etxekoan partetik.



JON ELIZONDO ETXEKANDENA urrotzarrak abenduaren 13an 5 urte bete ditu. Zorionak Urrozko eta Labaiengo familien partetik.



IGOR LEKUNAGA OTXANDORENA lezoarrak abenduaren 18an 19urte bete ditu. Zorionak familia eta lagunaren partetik.



IRATI LARRONDO abenduaren 19an 5 urte beteko ditu. Zorionak denen partetik.



AINHOA ALTZUGUENA MITXELENA beratarrak abenduaren 19an 5 urte bete ditu. Zorionak aita, ama eta Amaia.



IRIGO APEZTEGIA IPARRAGIRRE aranztarrak abenduaren 2an 15 urte bete ditu. Zorionak familia eta lagunaren partetik.



ASUN URANGA beratarrak abenduaren 17an urteak bete ditu. Zorionak familia eta lagunaren partetik.



JOSE ENRIQUERU ARBURUA beratarrak urtarriaren 5ean urteak beteko ditu. Zorionak eta muxuak, loritz eta Maitetxu.



BEÑAT ITURRERIA CUARTERO beratarrak 12 urte beteko ditu abenduaren 23an. Musu bat familiaren partetik.



AINARA BURGETE MIGELENA igantziarrak urtarriaren 4ean urteak beteko ditu. Zorionak attatto eta amatxoren partetik.



MIKEL ARZOENA MITXENA almandoztarrak abenduaren 15ean 2 urte beteko ditu. Zorionak aita, ama eta familiaren partetik.



MAIALEN MIKELARENA beratarrak abenduaren 31n 9 urte beteko ditu. Zorionak familiaren partetik, 9 muxu.

Navarro III
Municipal de Protección Forestal

TUBOAK

ZIRI GIDARIAK

GAZTAIN
PIKETEA

HESIETAKO
SAREAK

LORATEGI ETA
ZERRAKURA
MATERIALAK

Eslava Karrika, 15
☎ 607 842 709 ☎ 610 836 534
31320 MILAGRO
(Nafarroa)

**BORTZIRIETAKO
EUSKARA
MANKOMUNIDADEA**

**MANKOMUNIDADEKO
ESTATUTUEN ALDAKETAK**

Bortziritako Euskara Mankomunidadeak 2001eko azaroaren 14an egindako bileran, Mankomunidadeko estatutuak aldatzeko espedientea hasiera batean onestea erabaki zuen. Espedienteak jendaurrean egonen da hilabete bateko epean, interesatuek aztertu eta egoki juzkatzen dituzten erreklamazioak egin ditzaten.

Arantzan, 2001eko azaroaren 22an
Bortziritako Euskara Mankomunidadeko lehendakaria
J. Ramon Amoros Oskoz

**BORTZIRIETAKO
EUSKARA
MANKOMUNIDADEA**

**2002KO AURREKONTUAREN
HASIERAKO ONESPENA**

2002KO PLANTILA ORGANIKOA

Bortziritako Euskara Mankomunidadeak 2001eko azaroaren 14an egindako bileran 2002ko aurrekontua eta exekuzio oinarriak hasiera batez onetsi zituen. Espedienteak jendaurrean egonen dira 15 egunez, interesatuek aztertu eta egoki juzkatzen dituzten erreklamazioak egin ditzaten. Halaber, bilera berean Mankomunidadearen 2002ko plantilla organikoa onetsi zuen.

Arantzan, 2001eko azaroaren 26an
Bortziritako Euskara Mankomunidadeko lehendakaria
J. Ramon Amoros Oskoz

BERTSO SAIOA BERAN

Abenduaren 29an

20:00etan

Berako

Kultur Etxean

Bertsolariak:

Andoni EGAÑA
Iñigo OLAETXEA
Sustrai COLINA
Amaia AGIRRE



Amaia AGIRRE



Andoni EGAÑA



Sustrai COLINA



Iñigo OLAETXEA

Antolatzaileak: Berako Euskara Batzordea • Bortzirietako Euskara Mankomunidadea
Laguntzailea: Berako Udala

Zeramika eta bainuen erakusketarik ikusgarriena



alkain
Euskal Herriko
preziorik hoberenak
Katalua, astoria: 118-228 / 118-228
Larruaitzua: 118-228



BORDATXO

EGUNE , S E EKIN TE , K NTSUMIZI T N
ET LET T ICIT NS X TEN Z ZKET K .

22

L run t

DISKOTEKA

2

L run t

31

st l h r

ISK TEK E EZI URTE ZAHAR GAUA

URTE
BERRI
2002

UT IL

5

L run t

DISKOTEKA CITROËN SAXO BATEN ZOZKETA

BORDATXO EGU E IET K M TX

CIT NS X H U ZU ETZ T IZ N ITEKE

S r r r r n t r s tu l t l ...

Z rt un tz

Z n t t l f b r f u r b

S r un rtu z n. z z k t r r 2 2k Urt rr l r n 12 n



CM ... IN